

TOKIKOM

karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria
2012ko ekainaren 8a
319. zenbakia. 23. urtea



Txalupak etxerik gabe

Zubitik behera amarratuta egoten diren txalupek ordaindu egin beharko dute hemendik aurrera, uretan hor segitu nahi badute.

05

Orioko kontuak

Karkara-Udala hitzarmena

09

Kirola

A. Cotado eta I. Oliden

10

Aiako elkarrizketa

Amaia Guruzeta

24

Oroimenaren kutxa

Karmele Esnal

taller mekanikoa

AUTO-LAN C. B.



urrutirra Joan gabe
talde berria
zure zerbitzura

Pelotari kalea, 5 ORIO **943 83 00 34**


Sukalde eta bainuen erreformak

XANTI MUJIKA

Igeltseritza



699 46 76 21
943 13 10 37



Nahikari

HAIR DENDA

Arrantzale kalea, 25
48100 - Orko
Tel: 943 83 06 00
www.nahikari.es

FISIOTERAPIA Gertakizun Aritmetiko eta Nistaleko Winescher
NUTRIZIONISTA Gertakizun Argum.



sinergia

investigacion
fisioterapia

ibai ondo, 1, behe-oina | ORIO | **943 13 05 77 ~ 685 71 85 95**

uranga

auto zerbitzua



Aliprox

Eusko Gudari Kalea 13-15
ORIO
943 83 18 75

PAIG

zkue

Tf: **943 13 04 38**

Allianz 

Marigre Zaldua
aseguru agentea

Euzko Ondo, 10 Behe-oina
Telefonoa: 943 13 47 90
fax: 943 61 67 52
e-mail: zaldua.dolores.pa@allianz.es

colavitegia

ANTILLA

jiskolicea

Nahikari Kalea, 25 - TEL: 943 83 06 00

Kalekialdenda - Ume arropa

argine

www.lasernet.com/argine
Tel: 943 13 48 89

25%ko DESKONTUA FAMILIA
UGARTEN TXARTELAREKIN

SARASUA ERRETEGIA

Plater bereziak: Arrain zopa
Arrain eta haragi erreak

Eusko Gudari, 29 **ORIO** Tel: **943 83 00 05 / 943 13 25 32**

Automóviles ZARAUTZ

OTROEN ZERBITZU DEIALA

ZARAUTZ: TEL: 943 13 13 50



Sagasti

LEIHOAK

ROBERTO SAGASTI
Tf / fax: 943 13 00 77
sagastileihoak@telefonica.net
Arrantzale kalea, 65
20610 Orko (Gipuzkoa)

BARAKA

estilo berria

Geluzkoak /
Platerak
Plater kolortutako
Ereko jantziak

943 13 15 12
Astea



Sanitzi Ereka Abuztu, 66
943 89 44 34
20809 AIA-ORIO

ERRETEGIA

Erretze berria
Berretze berria
Berretze berria



Hemengo horatza.
Ereko produktuak: tripaki, odolki,
tsokarra, txerizko, kroketak...

PATXI OLIDEN

Eusko Gudari, 25 Tel: **943 83 00 30**

Gora ezkonberriak!

1

Ekainak 2a, larunbata zen, Santio Errekan zita, Mikel ta Annek ezkonduzkeko ordua zuten jarrita. Batak bestean eskua hartzeko bazuten gogo ta irrika, ezetzak bertan etzun lekuri bikote hau ikusita.

2

Ta ezkontzara batu ginaden famili eta laguna, denok batera egin nahi genun traineru beren arrauna. Santion hasi, Atxegan segi, izugarriko eguna; jan goxoan ta tragon artean ederki pasa genduna.

3

Egunen zehar pasa genitun momentu hunkigarriak, egin genuen nahikoa topa, txaloak eta irriak, behin eta berriz muxu bat eska bertan ginaden jendiak. Bide horretan segi aurrera, ta gora ezkonberriak!

319

karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

Kultur Etxea,
Eusko Gudari, 26
20810 Orio
943 831 527
karkara@karkara.com
www.karkara.com

EditoreaKarkara taldea
kultur elkarte**Zuzendaria**

Ana G. de Txabarri

Erredakzio burua

Irati Agirreazaldegi

Erredakzio taldeaPat Cowie,
Miren Etxeberria,
Iker Gurrutxaga, Eli Lasa
eta Jabier Zabaleta**Publizitatea**

Pat Cowie

Publizitatearen diseinuaLore Berasaluze
eta Iker Gurrutxaga**Testuen zuzenketa**Miren Etxeberria
eta Jabier Zabaleta**Ale honetako****laguntzaileak**Mirari Arriola,
Josune Azpiroz,
Mikal Etxeberria,
eta Jokin Zumeta,**Laguntzaileak**

Xabier Sukia

Diseinua

Danel Agirre Lertxundi

BanatzailakCristina Burlacu
eta Iban Recio (Orio)
Eli Irureta (Aia)**Inprimategia**Gertu Koop. E. (Oñati)
Lege gordailua SS-346/90
ISSN 1132-1105
Tirada 3.200 ale

KARKARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota iritzien erantzukizunik.

KARKARAN argitaratutakoa berreman daiteke, osorik edo zatika, baldin eta iturria aipatzen bada.

**PUBLIZITATE PREZIOAK****Iragarkia alero jarrita**

Modulu bat	12,00 €
Bi modulu	24,00 €
Hiru modulu	36,00 €
Lau modulu	48,00 €
Sei modulu	72,00 €
Zortzi modulu	96,00 €
Orrialde erdia	120,00 €
Orrialde osoa	204,00 €

Iragarkia behin jarrita

Modulu bat	16,00 €
Bi modulu	31,00 €
Hiru modulu	47,00 €
Lau modulu	64,00 €
Sei modulu	95,00 €
Zortzi modulu	127,00 €
Orrialde erdia	174,00 €
Orrialde osoa	306,00 €

Publizitatea kontratatzeko
Pat Cowierekin hitz egin
(695 780 720)

edo publikitatea@karkara.com
Prezio hauei BEZa gehituko zaie

LAGUNTZAILEAK**EUSKO JAURLARITZA**

Kultura Sailak
diruz lagundutako
hedabidea

Zabor onena, sortzen ez dena

Hondakinen kudeaketa pil-pilean jarri du bilketa sistemaren inguruko eztabaidak. Kudeaketa egoki batek, ordea, bilketaz harago joatea eskatzen du: zabor gutxiago sortu, eta gehiago berrerabili eta birziklatu behar dugu. Orioko birziklatze-tasa eskasa da: %30a.

Horregatik, Orio Zero Zabor harremanetan jarri zen Orioko Udaleko taldeekin eta lan-talde bat osatzea adostu zuten. Lan-talde horren helburu nagusia Orioko hiri hondakinen kudeaketa antolatzea da; batez ere, murriztean eta birziklatzean eraginez.

Horretarako, hainbat ekimen ditugu: hondakin organikoak bereizteko ikastaroak; ikastetxe, elkarte gastronomiko, taberna eta merkatariekin bilerak egitea... Kontzientziazioa izango da lehen-dabizi landu beharrekoa. Herritar guztien betebeharra izan beharko duelako hondakinak bereiztea, eta administrazioaren erantzukizuna, herritarrei baliabideak ematea betebeharrak hori gauzatzeko.

Murrizketaren inguruan ere badago zer eginik. Martxan da herriko harategi eta arrandegietan paperaren ordez *tu-perware*-ak erabiltzeko egitasmoa. Hor-taz aparte, gure eguneroko erosketetan hondakin gutxiago nola sortu jakiteko, herritarrei aztarnak emateko kanpaina abian jartzeko asmoa ere badugu.

Gaur egun, zaborra arazo larrietako bat dela ohartu eta arazo horri konponbidea emateko konpromisoa hartu behar dugu, nor bere etxetik hasi eta instituzioetaraino. Guztiok dugu gehiago egiteko bide horretan. ■ **Orio Zero Zabor.** Orioko Udaleko hondakinen mahaia osatzen dutenen -Bildu, EAJ, Orain eta Orio Zero Zabor-izenean.

Pertsona nagusiak eta estereotipoak

Helduak Adi, EAEn hedatuta dagoen gizarte sare bat da. Acex-Eske, Forun 50-70, Gueske, Hartu-Emanak, Helduen Hitzza, Secot Gipuzkoa... elkarte eta pertsona banakoaz -ni neu tarteko- dago osatua. Jaurlaritzarekin hitzarmen bat sinatu dugu eta hainbat gai ari gara aztertzen. Horietako bat *Pertsona nagusiak eta estereotipoak* da.

Gaurkoan, horren berri laburra eskaini nahiko nioke KARKARAKO irakurleari. Zahartzarora eta zahartzea historian zehar aztertu izan dira, eta esan dezakegu bi ikuspuntutatik baloratu direla:

Positiboa: pertsona nagusiak espe-

rientzia handia du, balioak transmititzen ditu eta errespetua zor zaio.

Negatiboa: zahartzarora egoera defizitarioa da, eta atzera bueltarik gabeko galera garrantzitsuak dakartza.

Balorzio negatibo horretatik datoz zahartzaroz dauden estereotipo asko:

- Karga bat gara ezer ematen ez duena, eta enbarazua egiten diona gizarteari.

- Zaharrak eta hauskorak gara.

- Egoskorak gara eta laguntza behar dugu.

- Pasiboak gure inguruan gertatzen diren gauzekin.

Aldiz, guk gurekiko dugun ikuspuntu zeharo desberdina da:

- Solidarioak izan gara gure zaharrekiko eta orain gure seme-alaben sostengu aktiboak gara. Familia indarrean badago gaurko gizartean, gu tartean gaudelako da.

- Gizarteko gainerako pertsonen kezka berdina ditugu bai politikan, balioetan, lanean, familian...

- Mugak ditugu gizarteko gainerako sektoreek bezalaxe.

- Desberdinak gara, baina bizikidetzaren balioak partekatu nahi ditugu.

- Gizartean jokatzeko dugun paper aktiboa aldarrikatzen dugu.

Egoera hori izanik, zenbait eskaera egin nahi dizkiegu bai pertsona nagusiei, bai gizarteari, baita erakundeei ere. Pertsona nagusiei: belaunaldi arteko partaidetza proaktiboa izatea gizartea hobetzeko ekintzetan. Gizarteari: pertsona nagusien irudia aldatzea komunikabideez baliaturik. Erakundeei, pertsona nagusientzako plan integral bat egitea eta aplikatzea. Horretaz guztiaz, behar bada, interesik balego beste batean hitz egin dezakegu.

Inor ez da zaharra aspaldi jaio zelako edo gaztea duela gutxi jaio delako. Zahar edo gazte gara mundua ulertzeko dugun eraren arabera - Paulo Freire-.

■ **Antonio Campos**

Orioko sheriff-ari

Urteak eta urteak daramatzazu herritar arruntoi isunak jartzen, eta orain zer eta zu arauak hausten?

Ibaian nindoan, Txurruka parean, bake santuan surf-arraunketan. Eta *zodiac* bat ikusi nuen abiadura bizian zetorrela. Eskuekin keinua egin nion mesedez polikiago joateko eskatuz. Ez zidan inongo jaramonik egin. Are gehiago, aldamenetik pasa zitzaidan abiadura bizian eta irribarrearekin, aberats berrien harrokeriaz. Orio Arraunketa Elkarteko kamisetarekin, Orio Arraunketa Elkar-

teko *zodiac*-arekin. Nor izango, eta Orioko *sheriff*-a!

Urteak eta urteak herritarroiei lehorrean isunak jartzen, eta orain uretan legea hautsiz eta bakean dagoena izorratzen. Lege guztiak hain ondo dakizkizun hori, jakingo duzu bada ibaian ezin dela legez hiruzpalau korapiloko abiaduratik pasa, ezta?

Kontatu diet pasadizo amorragarria oriotar batzuei, eta hiruzpalauk gauza berbera ziurtatu didate: horrela ibiltzen zarela ibaian sarri, han ere *sheriff*-a bazina bezala. Espero dugu eskutitz honek zer pentsatua emango dizula eta aurrerantzean bakea emango duzula, ibaian behintzat. ■ **Iñigo Fernández Ostolaza**

Aiako herriari

2012ko aurrekontuetan Aiako Udalak diru partidak jarri zituen Elkano auzoan aparkaleku berria eta frontoia egiteko eta, hari itsatsita, txoko bat. Plan berean, hilerriko muinoan, Altxerriko kobazuloen erreplika edo interpretazio zentro bat egiteko asmoa dago eta, hori aprobe txatuz, muinoaren bueltan paseo edo ibilbide bat. Hori gauzatzen hasteko plan berezi bat aurkeztu zuen EAJk. Plana bera lehenengo onarpena emateko egunaren bezperan azaldu ziguten (60 orrialde eta CD bat). Hurrengo egunean Bildukoak bozketan abstenitu egin ginen, ez baikenekien bozkatzen ari ginen ongi zegoen ala ez. Horrela, EAJ-koen botoekin, plana aurrera ateratzen. Horren jarraian eman ziguten plana osatzeko falta zen informazio osoa!

Ez zaigu prozedura egokia iruditu; baitetik, informazio osoa ez zigutelako eman eta, bestetik, geure artean plana aztertu, eztabaidatu eta erabakia hartzeko ere denborarik ez zigutelako utzi.

Lehenbiziko onarpenaren ondoren 40 eguneko epea izan genuen plana aztertzen hasi eta alegazioak aurkezteko. Horretan ginela, akatsak aurkitu genituen. Hasteko, Udala pasealeku horrek hartuko dituen lurren jabe guztiekin hitz egin gabe zegoela ohartu ginen eta hori larria da.

Segidan, dokumentuei heldu genien, tekniko baten laguntzaz, eta horietan ere akatsak aurkitu genituen. Plan berezia osatu gabe zegoen, ez baitziren proiektuaren kostuak sailkatuta agertzen, ez lurraz erosten zenbat gastatuko den, ez lur zoru edo partzela bakoitzari zenbat ordaindu behar zaion, ez proiektua garatzeko gestioek zenbat balioko duten, BEZik duen ala ez...

26. orrialdean jarraitzen du



Bñat Solaberrieta eta Ana Gonzalez de Txabarri, Orioko Udalak eta KARKARAK egindako hitzarmena sinatu eta gero. KARKARA

Bi hitzarmen sinatu ditu Orioko Udalak azken udalbatza eta gero

KARKARAREN eta Udalaren arteko hitzarmena aho batez onartu zen; baina, udalbatzarrean ez zen eztabaidarik falta izan: EAJk informazio falta leporatu zion Bilduren eta Orainen gobernari.

Maiatzaren 31n, ostegunarekin, iluntzeko 20:00etan, izan zen Orioko Udaleko ohiko plenoa. Martxoaren 28an egin zen aurrekoa eta, geroztik, bat bera ere ez dute egin herriko ordezkariak.

Udalbatzarra hasteko, Karmele Esnalen heriotzaren gaineko adierazpen instituzionala gai zerrendan sartzeko eskaera egin zuen Bilduko Jon Agirresarobek. Segidan, EAJko Jon Redondo kexu agertu zen dokumentazio falta zutela esanez.

Gai zerrendan lehen bi puntuak kreditu aldaketen inguruan izan ziren. Lehengoa 6 aldeko botorekin eta 5 abstentziorekin –EAJko zinegotzienak– onartu zen. Bigarrenean, bestalde, EAJk ezezko botoa eman zuen, kreditu aldaketa horrekin geldikina erabiltzen zelako eta ez zitzaielako egokia iruditzen hori.

Kultur Etxeko atezainaren lanaldia- ren aldaketa ere onartu zuten gobernu- ko bi taldeek. Hala, 2012ko martxoaren letik aurrera 25 orduko, %72ko, lanaldia

izartetik, lanaldi osoa izatera pasa da.

Laugarren gaiak eztabaida ugari sortu zuen. Sei aldeko botorekin onartu zuten Orioko Udalak eta Orio Arraunketa Elkartek sinatu beharreko hitzarmena. Materiala erosteko prozedura ez zela egokia iritzita, abstenitu egin ziren EAJko zinegotziak. Orain taldeko Joxe Angel Iparragirrek prozeduraren aldaketa horren zergatia denbora kontua izan zela

ZENBAKIA

2

Hitzarmen. Udalak sinatu dituen hitzarmenekin, herriko bi elkartek egoera hobetzea lortuko dute. Arraun elkartean urte dezente zeramatzen onzi berririk gabe, eta KARKARAK ere denboran luze itxaron du Orioko Udalak diruz emandako laguntza hobetze- ko.

azpimarratu zuen: *ohiko prozedura bidez, lehiaketa bidez, erosten bazen materiala, abenduan jasoko zuten. Kontua da aurtengo Espainiako txapelketetan ontzi berriak izatea nahi genuela. Hiru urtez ontzi bat bera ere erosi gabe egon dira, 2012an ontzi berriak erosteko aukera izango zutela agindu zitzaielako. Gauzak horrela, 167.000 euro bideratuko ditu Orioko Udalak, Orio Arraunketa Elkartek ontzi berriak erosi ditzan.*

Baina ontziak 12 urtez utzita jasoko ditu arraun elkarteak. Gainera, horren truke, ontzien eta arraunen mantentzea beren gain hartu beharko dute, eta orain dituzten ontzi batzuk teknifikazio zentrorra doazenen aisialdirako utzi beharko dituzte.

Gainontzean, beste hiru gai gehiago sinplez onartu ziren –animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen udal ordenantza, esaterako– eta gainerakoak aho batez, tartean Udalak eta KARKARAK sinatu duten hitzarmena. Hitzarmen horrekin, KARKARAK 15.750 euroko diru laguntza jasoko du, urtero EAeko KPIarekin –kontsumorako prezioaren indizearekin– eguneratuko dena.



Galtzagorri fest jaia antolatu dute aldizkariaren finantzazioa lortzeko. KARKARA

Galtzagorri aldizkaria kaleratuko du gazte asanbladak hilean behin

Zortzi orrialdeko hilabetekaria egiteko ardua hartu dute Galtzagorri gazte asanbladako kideek. Gai sozialen inguruan jardungo duen aldizkaria da gaurtik aurrera kalean.

Gaztetxean eta bertako asanbladan gai sozial batzuk behar bezala ezin zituztela landu konturatuta, gazte asanblada era-zeia erabaki zuten herriko gazte batzuk: Galtzagorri gazte asanblada. Herriko eragileetan parte hartzen duten gazteak dira, eta aldizkaria gai sozial asko lantzeko modu polita dela iritzita, hilabetekaria kaleratuko dute.

Aldizkariak 8 orrialde izango ditu, A5 formatuan, eta doan banatuko dute. Asanbladako kideek esan digutenez, *indarrak neurtu beharra dago. Gaztetxean zein beste taldeetan lan asko egiten da, eta guk ilusio berezia jarri dugu proiektu honetan. Hasieran, 8 orrialde izango baditu ere, gerora gehiago izan ditzake. Erraza da gehiagorekin hastea, baina segida izango duela ziurtatu nahi dugu.*

Besteak beste gai hauek landuko dituzte: feminismoa, presoen gaia, ekologia, autogestioa eta okupazioa; horretarako, herriko eragileen laguntza ere izango dute testuetan. Beste ekintza jakin batzuk ere egingo dituzte, *baina kontuz ibiliko gara. Gaztetxeari eta beste eragileei ez diegu kalterik egin nahi gure ekintzekin.* Aldizkarian parte hartu nahi dutenei, galtzagorri@gmail.com helbidera idaztea nahikoa dela esan dute.

Galtzagorri fest

Autogestioan sinesten dutenez, aldizkaria finantzatzeko kontzertuak antolatu dituzte ekainaren 9rako gaztetxean, gaueko 22:00etatik aurrera. 3 euro balioko du sarrerak, eta aldizkari bana eman- go zaie bertara joaten direnei.

LABUR

Musika

Abesbatzen kontzertua elizan

Salatxo abesbatzak eta Paz de Ziganda, Atarrabiako abesbatzak, kontzertua egingo dute larunbatean, ekainaren 9an, 19:45ean hasita, San Nikolas elizan. Atarrabiakoek *Yo me traje una cubana*, *Tourdion*, *Caminito del indio*, *Contrapunto bestiala alla mente*, *Esta tierra*, *Alegeratzen* eta *Boga-boga* abestuko dituzte eta Salatxokoek *Aitak et'amak*; *Zeruan eder ilargia*; *An Irish Blessing*; *Die Nachtigall*; *Ave Maria*; *Jeiki, jeiki, etchekuak* eta *Iru txito*. Ondoren, bi taldeek elkarrekin *Maitia nun zira* eta *Kantuz* abestuko dituzte.

Aisialdia

Toka eta igel jokoa

Ekaineko ostegunetarako toka eta igel jokoa antolatu dituzte Zaharren babeslekuok. Saioak 18:00etatik 19:00etara bitartean izango dira Herriko Plazan. Jostatu nahi duten ume, gazte zein helduek plazara agertu baino ez dute egin behar. Gainera, sariak banatuko dituzte.

Dantza

Musika eskolako emanaldia

Ekainaren 16an, 18:00etan, kiroldegian, musika eskolako ikasleek dantza emanaldia eskainiko dute. Ander Errastiren 182 ikaslek hartuko dute parte, baita instrumentu ikasleek ere. *Sarrera*, *Mari Andresan korotza*, *Orpo punta*, *Lagunen dantza*, *Txapeloaz*, *Agintaria*, *Agurra*, *Zazpi jauzi*, *Abaltzisketako Txantxo dantza*, *Ingurutxo*, *Zahagi dantza*, *Zortzi-koa*, *Fandangoa*, *Plazara*, *Ezpatatza* eta *3 koreografia* dantzatuko dituzte.

Ekainaren 22an egingo diote omenaldia Manuel Lasarteri

Aiako, Leitzako eta Orioko Udalak, bertako herritarrekin batera, elkarlanean aritu dira omenaldi bat eta bakarra egiteko.

Manuel Lasarte joan den otsailaren 12an hil zen. Handik gutxira herritar asko, norbanakoak eta taldeak, Orioko Udaleko Kultura Sailari omenaldiari buruz galdezka hasi zitzaizkion. Familiarekin harremanetan jarri ziren eta omenaldi bat eta bakarra egitea adostu zuten. Birtarte horretan, hala ere, beste omenaldi batzuk ere jaso ditu Lasartek; esaterako, ikastolaren ekainaren 3ko jaialdian.

Horretarako, hiru bilera ireki egin dira, eta hainbat herritar gerturatu dira ekitaldia antolatzeko bileretara. Orioko Udalak eta Errikotxia bertsozale taldeak hartu zuten beren gain antolaketa lana. Hala, Aiako eta Leitzako Udalak bertako biztanleekin harremanak eta baliabide materialak erraztu dizkiete oriotarrei.

Omenaldian, Orioko, Aiako eta Leitzako bertso-eskolek hartuko dute parte, besteak beste. Baina ekitaldia jendetsua izango da, eta han izango direnen ze-

rrenda luze samarra da. Aipatutako hiru bertso eskolez gain, honako hauek ere parte hartuko dute: Mertxe Oliden eta Asier Gozategi, Martin Perona, Gari eta Iñaki, Olaxka, Andoni Egaña, Anjel Mari Peñagarikano, Julio Soto, Iñaki Perurena, Luze, Olaso, Patxi Etxeberria eta Eusebio Lasarte. Bertsoak, musika eta bestelakoak izango dira Lasartek gertuko zituena pertsonen eskutik.

Ikuskizuna ekainaren 22an egingo da, ostiralarekin, gaueko 22:00etan hasita, Karela kiroldegian. Sarrera doakoa izango da. Aurretik, ekainaren 19an, goizeko 11:00etan, Koldo Mitxelena kulturunean prentsa agerraldia egingo dute omenaldiaren berri emateko.

Gauzak horrela, ekitaldiaren bitartez Manuel Lasartek urte askotan bertsolaritza eta euskararen alde egindako lanari gorazarre egingo diote. Herritarrei bertan izatera gonbidatzen ditu Udalak.



Lasarteren bustoa Leitzan. A. VILLAVERDE

Sanpedroak prest ditu festa batzordeak

Pare bat hilabetez landu dute aurtengo sanpedroetako programazioa. Ekitaldien zerrendan astindu ederra eman nahi izan dute, aurtengo festak asteburuan tokatzen direlako.



Talde oso zabala da festa batzordea osatzen duena. U. ATXOTEGI

Lau bilera egin eta gero, sanpedroetako festa-programa ia prest dauka festa batzordeak. Hala, lau eguneko festak izango dira aurtengo, 30.000 euroko aurrekontua baliatuta. Berrikuntza nabarmen artean, haurren danborrada izango da, beti ere txikien izen-ematearen arabera. Bestetik, literatur lehiaketak 25 urte betetzen dituela-eta, Salatxo plazan ekitaldi berezia egingo da, eta urte haueetan guztietan irabazle izandako batzuek bere garaian saritutako lanak irakurriko dituzte.

San Pedro egunean, Vilafrancako *Falcons* taldearekin, *castellers*-ak izango dira eta kalejira egingo da. Kalejira bukatzean, herri afaria izango da plazan eta, segidan, *Loretxu-berbena belarra* musika taldearekin erromeria. Ander Beldarrain trikitilariak koadrila batekin erromeri kutsuko taldea osatu du.

Hilaren 30ean, arrantzale eguna izango da. Arrantzale egunean itsasoarekin lotutako dekorazioa izango da plazan eta, besteak beste, sagardo dastaketa, produktu osasuntsuen azoka, sare jostailuen erakustaldia eta Orio Arraunketa Elkarteko traineruen aurkezpena izango dira. Festei bukaera emateko, uztailaren leian, aniztasunaren jaia izango da.



Kopa belar gainean dutela, pozik ageri dira Orioko Futbol Taldeko mutilak. O. ZULOAGA

Ohorezko mailara igo dira Orioko futbol taldeko jubenil mutilak

Bi urte eta bi igoera lortu ditu Clemente Fernandezek Luis Clemente semea ondoan duela. Talde polita osatu dute, bi kategoriatan lortu baitute igoera, mutil bertsuekin.

Orio bezalako talde txiki batean aritzeko balentria ederra lortu zuten maiatzaren 26an Clemente Fernandezek jubenil mutilek. Astebete lehenago mailaz igo-tzea lortu bazuten ere, denboraldiari bukaera emateko, multzo bakoitzeko one-nek finala jokatu zuten.

Vasconia talde donostiarraren aurka jokatu zuten finala eta 0-1 irabazi zuten oriotarrek. Urte osoko lanari bukaera ederra eman zioten, beraz, elastiko horidunek. Halakoetan, gainera, ez da erraza izaten igoera eskuratu eta gero tentsioa goian mantentzea, baina Clemente Fernandezek badu horretarako gaitasuna, antza denez.

Taldeko argazkian, ezker-eskuin eta goitik hasita, hauek dira azaltzen direnak: Julen Aizpurua, Dani Altuna, Mikel Elustondo, Mikel Usandizaga, Mikel Romero, Iñigo Zuloaga, Ander Dorronsoro, Xabier Atxega, Clemente Fernandez, Luis Clemente Fernandez, Alex Rodriguez, Jon Ruiz, Andoni Makazaga, Iñigo Exposito, Jokin Bilbao, Josu Gonzalez,

Aitor Urrutia, Julen Etxabe, Beñat Dorronsoro, Xabier Aramendi, Julen Garcia eta Iñigo Agirre.

Datorren denboraldian ohorezko mailan izango da, beraz, Orioko jubenilen futbol taldea. Bi urtez jarraian talde bat Ohorezko mailara igotzea lortu du Clemente Fernandezek Luis Clemente semea laguntzaile lanetan izanda: iaz kade-te mutilak izan ziren -talde hartako jokalaririk asko aurten jubenilak izan dira- eta aurten, berriz, jubenilak.

Esnaola ere gora

Iosu Esnaola oriotarra aurten Noja talde kantabriarrean aritu da. Espainiako Ligan Hirugarren mailako taldea zen eta maiatzaren 27an mailaz igotzea lortu zuten. Gauzak horrela, datorren urtean 2. B mailan jokatu du Nojak, esate baterako Realaren bigarren taldearen aurka eta Real Unionen aurka; bietan jokatu du Esnaolak. Realarekin lortutakoa eta gero, hiru urtean irabazten duen bigarren igoera du hau Esnaolak.

LABUR

Mendia

Nerea Amilibia 2. Hiru Haundietan

Larunbatean jokatu zen Manuel Iradier mendi taldeak bi urtean behin antolatzen duen Hiru Haundiak proba. Ondategin 00:00etan abiatu eta Araiara arteko ibilbidea egin behar zuten mendiz mendi Gorbea, Anboto eta Aizkorriko gailurak zapalduz eta, gehienez, 24 ordu ziztuzten parte hartzaileek horretarako. Nerea Amilibia aiarra bigarren izan zen emakumezkoetan irabazlearengandik 10 minutura eta 13 ordu eta 47 orduan egin zuen ibilaldia. Orio eta Aiako beste hainbat mendizalek ere amaitu zuten proba: Jose Inazio Manterolak 16 ordu eta 58 minutuan amaitu zuen; Jakes Gokoetxeak 18 orduan; Ines Zinkunegik 20:30ean; Juan M. eta Inazio M. Aldaik eta Raul Merinok 21:22an.

Isuntzako Ikurrinean bigarren

Joan zen igandean jokatu zen Lekeition, Isuntzako Ikurrina eta bigarren sailkatu zen Orioko trainerua. Urdaibai izan zen irabazle eta 10 segundo atzetik sartu zen Orio. Haizea kontra izan arren, Portugalere, Zierbena eta Zumaiaren kontra txanda irabazi zuen Mirotzak, hasieratik aurrea hartu eta azken luzean denborarik onena egitea ere lortu baitzuen. Orio Bk, berriz, 11. amaitu zuen irabazlearengandik minutu batera. Neskak, ordea, hirugarren izan ziren Zumaiaren eta Hibai-karen atzetik.



KARKARA

“Fisikoki hobeto ginela nabaritu dugu; batez ere, partiden azkenean”

Arantxa Cotado eta Iratxe Oliden

Zarautz Kirol Elkarteko futbolariak

Orioko Alexis eta Adriano dira edo, nahiago baduzue, eskuin eta ezker hegalean jokatzen dute, hurrenez hurren, Arantxak eta Iratxek. 1992an jaio zen bata eta urtebete beranduago bestea. Aurreko asteburuan, Espainiako bigarren mailara igo ziren.

IKER GURRUTXAGA

Igoeraz igoera dabil Zarautzen kirola. Aurreko KARKARAN eskubaloian oriotar asko zegoela esan bagenuen, nesken futbolearen ez dira atzera geratzen. Arantxa eta Iratxerekin jarri genuen hitzordua.

Nola joan da urtea?

Arantxa Cotado: urte erdia min hartuta pasa dut eta I. fasea ez nuen jokatu. Iratxe Oliden: Iaz, finalerdietan geratu ginen, igoerarik gabe, eta aurten helburua argi geneukan horrek behar zuela izan: gutxienez, datorren urtean sortuko

den Euskal Ligan sartzea.

Eta erraza izan al da bidea?

A.C.: Egia esanda, lehen helburua denboraldiaren erdia bete genuenerako lortuta geneukan.

I.O.: Baina partida batzuk izan ditugu nahiko zailak; batez ere, bi finalak.

Oraindik ezin sinetsita gaude igo garela.

Esperientzia berria, beraz.

A.C.: Berria eta zaharra aldi berean. Izan gara aurretik ere maila horretan, baina gazteak ginen eta taldea jaitsi egin zen orain arte egon garen tokira.

I.O.: Orain ezberdina izango da, taldeak esperientzia hartu du eta asko balio du horrek.

A.C.: Nik orduan 15 urte neuzkan, baina taldea askoz ere helduago zen.

I.O.: Garai berria zen guretzat, kadeteak ginen eta liga nazionalera igo ginen batzuk utzi egin zutelako eta beste batzuk Realera joan zirelako. Jota bukatze genituen partidak, burua ezin altxa, baina asko balio izan zigun orain gauden tokira iristeko.

A.C.: Urte horietan fisikoki hobeto ginela nabaritu dugu. Batez ere, partiden azken minutuetan.

Herrian taldea edukita, ez al da gogorra kanpora joatea?

A.C.: Dagoeneko ohitu gara. Urte asko dira han jokatzen.

I.O.: Gainera, gaur egun ia denok dugu gida-baimena, eta horrek ere laguntzen du.

A.C.: Ni, gainera, Orion hasi nintzen jokatzen, baina kirol mailak tentatuta joan nintzen Zarautzen jokatzerara.

I.O.: Nik lagunak nituen han eta, urtebete jokatu eta gero, bueltan etortzekotan izan nintzen. Baina, uste dut han jarraitzeko erabakia zuzena izan zela.

Egoera berriaren aurrean, nola ikusten duzue taldea?

I.O.: Taldea bere onenean dagoela uste dut eta gaztetasuna da nagusi.

A.C.: Gainera, batuta gaude. Talde bat gara eta asko eskertzen da hori, igotzen diren kadeteek ere ez digute hain urrutikotzat hartzen. Bi taldeak bata bestearen ondoan entrenatzen dugu-eta.

Ospakizunetarako izango zen tarterik.

I.O.: Igandean ez genuen gehiegi ospatu, baina aste honetan Port Aventura-rara joango gara eta datorren astean klubeko bazkaria daukagu.

A.C.: Kapitainek agindu ziguten igotzen baginen eramango gintuztela Tarragonara, eta guk hitza hartu diegu.

Eskerrak emateko tartea aprobetxatu nahi?

I.O.: Zaletuei eman behar dizkiegu eskerrik, gurekin izan dira une zailtan eta gozoetan, eta hori gauza handia da guretzat.



KARKARA

“Hondakinen %10 bakarrik eramán behar dugu zabortegira”

Amaia Guruzeta Aizpurua

Urola Kostako Udal Elkarteko presidentea

Abuztuan hartu zuen Urola Kostako Udal Elkarteko presidente kargua eta, teknikarien lana koordinatuz, enplegua, euskara eta ingurumena gai nagusi ditu lan jardunean. Helburuen artean, zaborraren kudeaketa da une honetan garrantzitsuena.

IRATIAGIRREAZALDEGI

Orion jaio, Donostian hazi, Aian bizi eta bertako zinegotzi da eta Zarautzen lan egiten du. Eskualdearen ordezkari izateko, ez dira kredentzial txarrak eta, hala, Urola Kostako Udal Elkarteko presidentea da, eskualdearen irudia hainbat arlotan. Aian Bilduko zinegotzia da eta, Bilduk eskualdean gehiengo lortu zuenez mankomunitatean, Bilduri zegokion ordezkari hartu zuen; hasieran gogorra izan arren, ari da martxa hartzen.

Urola Kostako Udal Elkarteko presidente zara... zein da zure egin beharra?

Lana teknikariek egiten dute, baina gai bakoitza nondik bideratu behar den erabaki politikoa da; beraz, horiek koordinatzea da nire egin beharra. Teknikariek egiten duten lanaren gainean baimenak ematea. Erabakiak taldean hartzen dira.

Nola aurkitu zenuen kargua, hartu zenuenean?

Gai bakoitzaren egoera ezberdina zen. Enpresa eta enplegu arloan lan asko egin da. Diru laguntzak jasotzen dira Eusko

Jaurlarizatetik eta Europatik, eta horren arabera egin dezakegu lana; horiek murriztuz gero, akabo. Orain arte diru-laguntza horiek ongi iritsi dira, baina, pixkanaka, ezin dugu lehen bezala aurrera eramán gure lana, murrizketak izan direlako eta laguntza batzuk eten egingo direlako.

Ingurumenari dagokionez, Urtetako zabortegiak legea betetzen du, baina hondakinen kudeaketa ez da egokiena. Ez dugu Europatik eskatzen den birziklatze neurria lortzen. Aldatu behar da.

Euskararen ere, legealdi berriarekin, euskararen partida handitu dugu mankomunitatean, eskualdean euskarari bultzada eman nahi diogulako.

Zein dira aurrerako erronka nagusiak?

Denbora gehien ingurumenari, hondakinen kudeaketari, emango diogu. Jendea kontzientziatu behar da Europako legea betetzeko: hondakin gutxiago sortzeko, berrerabiltzeko eta birziklatzeko. Erosketak egiterakoan kontuan izan behar da zein hondakin sortuko ditugun: paperezko, plastikozko bilgarriak, ontziak...; botilak edo poltsak... ez behin bakarrik erabili; eta dena birzikla daiteke.

Gaur egun zabor poltsaren %45 organikoa da; beraz, poltsatik ateraz gero, erdia besterik ez litzateke joango zabortegira. Zabortegian arazo gehien organikoak ematen du, fermentatu egiten da, metanoa sortzen du, ur zikina... Kudeatzen diru asko gastatzen da eta zabor erdia sortuz gero, udalei erdia eskatuko genieke.

Organikoa konpostatze guneetara bideratzen da eta gero konposta saldu egiten da. Gure programan konpostagailu komunitarioak ere badaude, auzoan ontzia jarri, zabor organikoa bota eta konpost bihurtuta baserrietarako, lorategietarako erabili.

Papera, beira, plastikoa, dena birzikla dezakegu. Zabortegira %10 bakarrik eramatea lortu behar dugu eta hondakin inerteak izango dira; esaterako, erratzarekin jasotakoa, boligrafoak, zigarrokinak, kafe kapsulak...

Datuak ikusi besterik ez dago jakiteko jendeak zenbat birziklatzen duen. Norberak birziklatzen duelako, askotan pentsatzen dugu aldamenekoak ere berdin egiten duela; baina, zaborra edukiontzira botatzera joaten garenean, ikusten dugu, batzuetan, denek ez dutela birziklatzen. Ingurumena denona da, gure ondorengoei zer utzi behar diegun kontuan hartu behar dugu, eta keinu txiki batekin emaitza handiak lor daitezke.

Kontuan izan behar da, erraustegia 7 kilometrora izango dugula, oso gertu.

Getaria, Orio, Zarautz eta Zumaiako alkateekin hondakin bilketari buruzko adierazpena egin duzu.

Kontzientziazio kanpaina egin behar dugu. Birziklatze maila, batez beste, %10ekoa da eta zabortegira eramaten dena %70, eta zuzenean sufritzen ari gara hori. Atez ateko sistema eskualdean bideragarria ote den ere aztertzen ari gara.

“Urtetako zabortegeiak legea bete arren, hondakin kudeaketa ez da egokiena. Ez dugu Europako birziklatze maila lortzen”

“Aian ez zen ia gaztelaniaz hitz egiten, eta orain umeen artean entzuten da. Udaletik edo Udal Elkartetik neurriak hartu behar dira.”

Beste alorretan, zer helburu dituzue?

Lana lortzeko arazoak dauzkan jendearentzat ikastaroak egiten dira. Diru-laguntzekin brigadak sortzen dira eskualdean lorezaintza, soldadura eta konponketa lanetarako. Enpresaren lehiakortasuna bultzatzeko ere foro bat sortu da.

Bestalde, mankomunitatea diru-laguntzekin, udalen ekarpenekin eta zabor tasekin finantzatzen da, eta udalen ekarpenetik Sahara edo Txernobiletik umeak ekartzeko laguntza ematen zaie elkarteei.

Aiari zer ematen dio Udal Elkarteak?

Udal elkarteak izanik, udalen indarra bateratzen du eta Aiak, beste herriek bezala, mankomunitatearekin indar gehiago egingo du. Hondakin bilketa mankomunitatearen izanik, aurrekontuetan sumatuko da.

Krisi egoeran laguntza eskaintzen diegu enpresei lehiakortasuna hobetzeko eta Aiako enpresen egoera ere txarra denez, laguntza jasoko dute.

Euskara, orain arte hala izan ez bada ere, gaur egun kezkarria da. Nabaritzen da herria ireki dela eta hizkuntza arriskuan dagoela, eta lan berezia egin behar da herriaren gure hizkuntzari eusteko. Lehen Aian ez zen gaztelaniarik apenas entzuten, eta gaur egun umeen artean entzuten da, eta alarma pizteko moduan gaude. Mankomunitateetik edo Udaletik, baina neurriak hartu behar dira.



Ikerne Badiola Kultura, Gazteria eta Kirol diputatua eta Igor Iturain Aiako alkatea. FORU ALDUNDIA

Aldundiak, asko jota, erdia emango du kirol eta aisialdi gunerako

Hilerriaren inguruan gutxi gorabehera kilometroa izango duen ibilbide laua egingo dute 2013ko udarako. Korrika egiteko edo paseorako proposa izango da.

Gipuzkoako herriak kirol azpiegituraz hornitzeko konpromisoa hartu zuen aurreko urteetan Foru Aldundiak *Gipuzkoako biztanleek kirola egiteko beharrari erantzuteko*. Horren harira, hitzarmena sinatu dute Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Aiako Udalak. Aldundiak, gehienez, ibilbidearen kostuaren %50 ordainduko du. Beraz, ezingo du gainditu 163.000 euroko muga. Kopuru horretatik %80 frogagiriak aurkeztu ahala ordainduko ditu Aldundiak eta gainontzekoa obrak bukatu dituztela ziurtatzen dutenean. Proiektuak 300.000 euro inguru balioko du, nahiz eta Igor Iturain alkatearen esanetan, *aldaketak egin ditugu eta ez da erabat zehatza, baina gutxi gorabehera hori izango da pasealekuaren kostua*.

Aiako Udalak lanen jarraipen batzordea eratu eta lanak egin ahala sor daitekeen edozein gorabehera konponduko du; lanak gehienez sei hilabetetan egite-

az arduratuko da; eta ekipamenduaren kirol erabilera, gutxienez, 10 urtez mantentzea bermatuko du.

Ibilbidea

Hilerriaren inguruan egingo dute kirol eta aisialdi eremua izango da pasealekuaren gunea. Gutxi gorabehera kilometro bat izango duen ibilbide lau samarra da, korrikarako edo paseorako egokia izan daitekeena. *Pasealekua, batez ere, herritarrek korrika egiteko aukera handiagoa izan dezaten eraikiko dugu, baina baita ere adineko pertsonen ibiltzeko beste toki bat ordekan izateko*, dio alkateak.

Bestalde, Altxerriko leizearen erreplika ere hilerriaren aldamenean egin nahi dute eta, horrela, bi egitasmoak bateratuko dituzte.

Udaletik adierazi dutenez, asmoa da lanak 2012 bukaeran hasia eta pasealekua 2013ko udarako erabilgarri izatea.

Kooperatibak plazan segitzearen alde



azkide, herritar eta erosle baten iritzia. Otsaila: urteko batzar nagusirako deia. Urteko kontuak eta aurrerako asmoa: denda berritzea.

Proposamenak: bat, dagoen lekuan etxea berritu eta denda berria egitea eta bestea, etxea Udalari eman eta hark, ordainetan, Etxetxo azpialde horretan eraikin berria egin denda berriarentzat. Aukera ezberdinak aztertu behar dira... Ez dago ezer erabakita...

Bilerarako abisua jasoko ote genuen berriz ere, proposamenen azterketa egin ondoren, baina ez. Erabakia hartuta omen: Etxetxo azpialdean joango da; halako zurrumurruak kalean. Ez dakit beste 147 bazkidek ze iritzi izango duten; jakin nahiko nuke! Hartu den erabakiare-

kin konforme gelditzeko, gehiengoaren nahia dela jakinda.

Herrian denda bat, bakarra, eta plaza-tik atera behar al dugu? 90 urte daramatza bertan. Pena da! *Penarekin ez omen dago bizitzerik*. Penetan geratu nahi ez eta, horretxegatik esango dut nik nirea.

Plazari bizitza kentzen ari zaio. Plaza herrigunea da, herritar askok elkarri egunona ematen diogun lekua da, egunerokoan elkartzen gaituena; nortasuna ematen dio herriari. Uste dut merezi duela hainbat gauza sakrifikatzeak –zoru bakar bateko eraikin baten egokitasuna, aparkaleku batena– herriko denda plazan izateagatik. Ez dut esaten nire erosotasunagatik erosketak egiterako garaian; nik, Aian bizi izanik, Aian egingo baititut erosketak. Halaxe ezagutu di-

tut etxeokak, halaxe egin zuten beren garaian gure aitona-amonek, halaxe egin dute gure gurasoek, halaxe egiten dugu guk egunero eta halaxe egingo dut, nik behintzat, Aian bizi banaiz. Denok egin behar duguna da, herrian kooperatibari eta zerbitzuari eutsi nahi badiogu.

Eskerririk asko Andoni, Rebeka, Zior-tza eta Eñaut, Miren, Agustin Aldalur (gure oroimenean) eta Agustin Arruti, eskerririk asko Josetxo, Antonio eta Norberta –gure oroimenean–, eskaini diguzuen eta eskaintzen diguzuen arreta eta zerbitzuagatik. Eta eskerririk asko On Manuel, kooperatiba honengatik urtez urte egin duzun guztiagatik. Nire eta gure etxeokoen begirunea eskainitako denbora, lana eta laguntzagatik.



Lehen jaunartzea eta bataioaren berritzea

Behean, ezkerretik hasita: Aimar Azkue, Uxue Eizagirre, Gurutze Pagadizabal, Unai Albeniz, Nahia Eizmendi, Asier Alberdi, Uxue Albeniz, Nerea Urriza, Aitzol Iruretagoiena eta Eider Arizaga. Atzean, berriz, Aritz G. de Txabarri, Kepa Arruti, Maialen Gorostidi, Alex Enparantza, Kepa Orbegozo, Unai Uzkudun, Iñigo Lertxundi, Lorentzo Orbegozo eta Aitziber Fernandez.



13. Etxaizberri, harginen etxe

San Martin auzoan, Etxaizarra dagoen lepoaren Usurbil aldeko maldan dago Etxaizberri baserria, A8 autobidearen ertzean ia. Egiturari dagokionez, oinplano laukizuzena eta bi isuriko teilatua ditu baserriak, eta egurrezko egitura du oraindik ere barruan, baita harlangaitzezko partak ere, kareztatuak dauden arren. Lehenengo solairuko leihoak, berriz, harlanduzkoak dira.

Baserriaren inguruko datu dokumentalik apenas aurkitu bada ere, 1863koa da lehen aipamena. Urtetan hutsik egon ondoren, egungo jabe galiziarrek orain dela bost urte erosi zuten baserria eta ez dute informaziorik. Hala ere, jakina da, lertxunditarrek, Etxaizarrako Etxaiz etxebizitzako familiarena izan zela eta uste dute, seguru asko, hango seme-alabaren batek egingo zuela eta, beraz, hortik datorkiola Etxaizberri izena.

Gaur egun, ez da baserri lanik egiten Etxaizberrin, hargintzatik ateratzen dute bizimodua. Galiziatik etorritako bi anaia 10 urtean ari dira hemen lanean eta Gipuzkoan gelditzen diren hargin bakarrenetakoak dira. Hargin lantegia ere baserrian dute; izan ere, hasi herritik

gertu hasi baziren ere, kexak jaso zituztelako aldatu ziren baserrira. Horrelako lantegi bat ezin da herriaren erdigunean jarri, lana zikina eta zaratatsua baita. Herriari egin diote mesederik, ordea, Orioko San Nikolas eliza berritzeko lurrerako eta aldareko mahaia egiteko erabili ziren Itxaspeko harriak; hain zuzen ere, Etxaizberriko harginak prestatu zituen.

A-8 autobideko azken laneak – Orio eta Usurbil artean (Aritzeta) sei erreietara handitzeko proiektua – baserriko lurrak bitan zatitu zituzten eta baratze txiki bat baino ez dute, etxerako barazkiak ateratzeko adina.

ARGAZKIA ETA INFORMAZIOA: ZEHAZTEN

HAIZE BERRI
 natura-jatorriko kafeak
 Plaze konbinatuak, kokatzak, hamburgerak, rucioak, egurreko nitxoak...
 ETA ESTROPA ERAMAZTEKO ZERBITZUAK
 9144 10000 - 914411 | 914101011 | Ansoa eta gurea

MIRANDA
 GELINA eta lortu eskailerak...
 beira iluneko anis larak
 egurreko diskotegia
 Urdazeta bideak 3 | 4600 42 92 70n | ZARAUTZ

ANORGA TXIBI S.L
KRISTALDEGIA
 • komertzial instalazioak • beira bikoitza
 • segurtasun beirak • dutxa-itxiturak eta irristailuak
 • ispiluak • barandak • kristal mota guztiak...
 Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45



Errioan ostatu
hartzen duten
ontzi txikien
zerga



Itsasontziak erriogan, moila parean, orain arte jabeek nahi izan duten tokian jarri dituzte, agintariek bestelakorik esan artean. Legea betetzeko agindua jaso dute orain eta erriotik kenduko ez badituzte ere, **ontziak dauden lekuan mantentzearen truke tasak ordaindu** beharko dituzte.

TESTUA: IRATI AGIRREAZALDEGI
ARGAZKIAK: KARKARA

Erriogak soinua egiten duenean, ura dakarren seinale izaten da; baina, oraingoan, uraren ordeztan, bestelakoak ekarri ditu erriogan itsasontziak ainguratuta dituztenentzat.

Erriogan, zubitik behera dauden itsasontzien jabeek honako oharra ikusi dute orain dela gutxi: *Orioko portuan baimendu gabe dauden ontzi guztiak, 2012ko maiatzaren 31 baino lehen atera*

beharko dira. Hori gertatu ezean, ontziak erretiratu egingo dira eta eragin dituen pertsonaren kontura joango dira neurri horren ondorioz sorturiko gastu guztiak. Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio saileko Gipuzkoako Portuen Lurralde Zerbitzuak sinatutako oharra zen hura, kalean agertu zena.

Maiatzaren 31 pasatu da, baina itsasontziek erriogan diraute, eta ez dituztela, oraingoan, handik aterako esan digu Luis Azkuek, itsasontzia moilan lotuta dutenen taldeko kideak. *Ohar horretan jartzen duena ez da beteko. Esan baligute araudia 2013an betearaziko dutela, urtebeteko epea dagoela-eta, ez genioke kontuari kasu egingo, baina uste dugu orain jarri dutela gu ere pixka bat mugitzeko.*

Modua, ustez, aurkitu dute jendartearen sortu den alarma zer bait baretzeko. Portuetako agintariekin izan dira bileran jabeetako batzuk, eta esan omen diete, ontziak kendu ez, baina denona dena, errioga, urte guztian erabiltzeko ordaindu beharra dagoela.

Paseoa eta etxerako arrantza

Erriogan dauden txalupak, moila inguruan amarratuta daudenak, aisialdirako erabiltzen dituzten jendeak, batik batik. Ontzi horietan harrapatutako arrainik saltzerik ez dago; beraz, etxerako eta gertuko entzat arrantzatzen dutela dio Luis Azkuek. Kirol portukoak bezala, errioko asko, paseorako erabiltzen dituztela ere esan du, eta biak konbinatzen dituzten



Kofradia eta anbulatorioren kontrara ere badaude hainbat ontzi. KARKARA

ontziak, batean eta bestean badaudela. *Gero eta kabinadun ontzi gehiago dago eta horiek bietarako dira, arrantzarako eta paseorako. Batzuk oso gutxitan erabiltzen dute ontzia, badira beste gutxi batzuk, 6-8, goiz eta arratsalde ibiltzen direnak. Etxerako lupia bat harrapatzeak, nori ez dio ilusioa egiten! Udan lagunak bisitan etorri eta paseatzera ere joaten gara txalupan. Arrain txiki txapelketa ere antolatu izan dugu.*

Aisialdiari kezka txiki bat sortu zaio oraingoan; hala ere, badirudi taldean irtenbidea aurkitu dutela.

Ordainketa

Portuetako zerbitzuen tasak arautzen dituen legea 2004koa da, 2007an berri-tua. Beraz, zergatik erabaki dute orain betearaztea? *Ez dago interes berezirik orain izan dadin. Egin behar bada egingo da, baina ahalik eta beherapen handienarekin. 2007an indarrean jarri balitz, ordutik ordaintzen egongo lirateke jabeak, azaldu du Azkuek.*

Jabeen ustez, babesik ez duen moilan ontzia izateagatik ordaindu beharrak ez du ez hanka eta ez bururik. Azkuek dio: *portualeku itxia, seguru gauden leku da. Hondarribian barruan dago, Pasaian gune batzuetan, Donostian, Getarian, Mutrikun eta Orion, ez dugu itsasoaren arriskurik, baina uhalak daudenean erriok hartzen gaitu.*

Erabiltzaileek argi dute, etengabe uretan leku bat okupatzen bada, hau da,

Orioko portuan baimendu gabe dauden ontzi guztiak, maiatzaren 31 baino lehen ateratzeko agindua jaso zuten jabeek. Bestela ontziak erretiratuko zituztela

“Jendeak aisialdirako erabiltzen ditu itsasontziak. Etxerako lubina bat harrapatzeak nori ez dio ilusioa egiten edo udaran lagunak bisitan etorri eta paseatzera joatea”

Erabiltzaile gehienek argi dute, etengabe ur xafra okupatzen bada norberarena balitz bezala eta ez bazaio beste bati erabiltzen uzten, ordaindu egin behar dela

Erriotan zubitik gora eta behera dauden ontziak kontatuz gero, guztira 100etik gora dira itsasontziak eta arauak zubitik behera dauden 40 ontzietatik eragingo lieke

Erriotan 70-100 euro ordaindu beharko lirateke urtean. Kirol portuan 1.270 euroko kuota ordaintzen duen jabeak itsasontzi berarekin 100 euro ordainduko lituzke moila inguruan

gune hori norberarena balitz bezala hartzen bada, eta ez bazaio beste bati itsasontzia han jartzen uzten, ordaindu egin behar dela.

Hori da, hain zuzen ere, Felix Asensio Portu agintariari erabiltzaileek bileran esan ziotena. *Getarian pantalan oso onak daukate portuaren barrenean, eta husteria ordaintzen dute. Hemenez daukagu pantalanik eta bizia arriskuan jarri behar izaten da askotan ontzira sartzeko. Zumaiarrek ere arazo bera daukate. Hemen, 70-100 euro ordainduta aurrera egingo genuke. Behin ere ordaindu ez duenari min egingo dio. Baina jendea iru-buruan sartzen ari zaio ordaindu egin beharko dela, dio Azkuek. Asensioek argitu zien lege hori ez dela berek jarritakoa, lehengoek baizik, kirol portua gainontze-koetatik bereizteko. Hala ere, onartu zuen oharrak jartzea jokamolderik egokiena izan ez bazen ere, langile batzuk jarri zituztela eta agintariak derrigortuta daudela legeak betearaztera.*

Berrantolaketa

Arauk arau, agintariak antolaketa dute helburu: itsasontziak, uretan, edozein tokitan ez jartzea, alegia; arrantzaleei trabarik ez egin eta moila garbi edukitze-ko. Beraz, bi irizpide horiei erreparatuta, agintarien nahia litzateke ontziek moilan duten kokapen berrantolatzea. Txalupa jabeek, ordea, uste dute trabarik egiten ez badute, ongi daudela. *Esan gien kanpotik etorritakoei baino, gaur*

egun moilan barruan dauden ontzi jabeek gehiago dakitela eta kofradiarekin harreman ona dutela. Beraz, muturra asko ez sartzeko txalupa bakoitza non egon behar duen eta non ez esanez, azaldu du Luis Azkuek.

Ez dute nahi beste inor etortzerik ontziak berrantolatzea guk bizitza guztian horrela ezagutu dugunean. Getarian ontzi batzuek sekulako pribilegioak dituztela uste dute, eta hemen beste batzuk izorratuta daudela eta hori ez dela bidezkoa. *Getarian hitzarmen bat egin zuten, legea ezarri gabe, kofradiak diru kopuru bat ordaintzea eta erabiltzaileek ezer gutxi. Ordaintzea onartu dugu guk, baina besteek...*

Erabiltzaileen ustez, moila parean gehiegi pilatuko balira, orduan, behar bada hartu beharko lirarteke beste neurri batzuk; baina, daudenak dauden bitartean, ez dute uste inork trabarik jarri behar litekenik. *Lehentasuna orain daudenek izan behar lukete erregularizatzeko eta, gero, beste norbaitek sartu nahiko balu, administrazioak hartuko luke erabakia.*

Imanol Gomez Muñagorri salbamenduko itsasontzien eskola bateko ikaske taburua da eta Orion praktikak egiten ditu ikasleekin. *Esan duenez, guretzat moilako txalupak ez dira inongo traba. Gehiago etorriko balira eta tokirik egongo ez balitz, antolatu egin beharko lirarteke; baina kontua ez da bakoitzak nahi duen tokian amarratzea.*

Azkuek beti ezagutu ditu aisialdiko itsasontzi txikiak portuan, eta orain dela 200 urte ere bazirela dio. *Lehen, ordea, beste aldera joan gabe ere nahikoa leku bazen, zulo bat baitzen; nik beste aldea hutsik ere ezagutu dut. Kirol portura ez joateagatik, asko kostatzen zaiolako, erriora, moilara, etorri da jendea, eta izan da berea izan gabe aingura botatzeko toki bat saldu nahi izan duenik ere.*

Erriorean zubitik gora eta behera daudenak kontatuz gero, guztira 100etik gora txalupa eta motorra dira, eta arauak zubitik behera dauden 40 ontziei eragingo die. *Zubitik gorakoan artean batzuk sekula erabiltzen ez direnak ere badaude. Urteko gutxieneko kuota bat -50 euro-jarriko balitz, gauza jakina da askok ontziak kendu egingo lituzketela; izan ere, kentzeak lana ematen du, desmuntatzeko dirua ezinbestekoa da... Esaten ziguten taketaketa ainguralekuak txukun jartzeko, itxura txarra eman ez zezan; baina itsasontzi hondoratuak ikusteak lotsa eta pena ematen du.*

Berrantolaketaren harira, erabaki dute lehentasuna izango dutela orain daudenek. *Norbaitek aldatu nahiko balu, beste toki bat gustukoagoa duelako, ez zaio utzi behar, beste traba egiteko*

DOAN IZATETIK ORDAINTZERA

Legea betetzen ez bada, portua itsasontzi hustuko zutela zioen oharrak eta araua garraio, kontsumo eta merkataritza zergen baitakoa da. Portuetako zerbitzuen, eta zehazki kirol eta aisialdi ontzien zerbitzuen truke ordaindu beharreko tasei dagokie.

Tarifa ordainduko dute itsasontzi jabeek, moila eta hango sarrera-irteerak bideratzeko instalazioak erabiltzearen truke; dagokien lotura lekuan, amarraduran edo ainguralekuan ontzia edukitzearen; eta erabiltzaileen moilako joan-etorrien, pantalanetako ibileren eta portuko gainontzeko zerbitzuak erabiltzearen truke.

Kirol portuko tarifekin alderatuta merkeagoak dira, baina kontuan hartuta orain arte ez direla ordaindu, ontzi jabe batzuk kexa dira. Honakoak dira hain zuzen ere ordaindu beharrekoak metro koadroko eta eguneko: amarrea norberak eginez gero (Orion orain arte bezala), 0,031890 euro; amarrea administrazioarena bada, 0,063780 euro; moilara amarratuak 0,076536 euro. Pantalanen kasuan, prezioa pixka bat altuagoa da, baina Orion ez dago pantalanik. Bestalde, aldameneko itsasontziaren edo moilaren kontrara daudenean aurrez aipatutako kopuruen %50 ordainduko dute. Gainera, bi metrotik beherako sakonerako guzuetan beherapena %25ekoa izango da, baldin eta honako baldintzak betetzen badira: ontziaren luzera 6 metrotik beherakoa izatea; motorren potentzia 25hptik beherakoa eta hiruhileko bateko aurretiaz ordaintzea. Sakonera metro batetik beherakoa denean murrizketa %50ekoa izango da. Lehorrean gelditu eta marrengatik nabigatzeko aukerarik ez duten ontzien beherapena %75ekoa izango da.

Zifra asko eta hemendik aurrera ordaindu beharrekoak, gainera. Hala ere, ahalik eta gutxien ordaintzen saiatuko direla esan digu Luis Azkuek eta negoziatzen ari direla.

arriskua bailegoke. Beraz, jabeek orri bat bete beharko dute beren datuekin, lanak aurreratzeko.

Oraingoz, daudenetan utziko dituzte ontziak, baina diru bat ordainduta. Hori elkarte baten bidez egin nahi dute, ordainketa %15 merkatzeko, *dena dela nahikoa da pare batek ordaindu nahi ez izatea arazoak sortzeko*, dio Azkuek. Orioko moilan 70-100 euro ordaindu beharko lirarteke urtean, ontziaren tamainaren arabera. Kirol portuan 1.270 euroko kuota ordaintzen duen jabeak ontzi bera erriorean izango balu, 100 euro ordainduko lituzke. Kirol portuan zaintza eta zerbitzuak dauden arren, aldea handia da.

Txalupak txukun izateko

Imanol Gomezek dio kontrolak ez duela dirua gastatzea esan nahi. *Norbaitek ontzi bat duelako eta kontrolatua duelako, ez du esan nahi izugarritzko dirutza ordaindu behar duenik, baina dena da kontrolatuta egoteko. Orain edozein itsasontzi ainguratuta dagoen tokian beste norbaitek ere lekua nahiko balu, irtenbidea litzateke berrantolatzeko, aseguruak izatea itsasontzia modu onean dagoela adierazteko. Kasu honetan, Orioko Udalak portuko agintaritzaren bitartez egin beharko lukeela uste dut.*

Donostian ere jaso zuten itsasontzien kokapena berrantolatzeko oharra, eta hala egin zuten. *Donostian, ainguratzeko tokiak piratak ziren, bakoitzak nahi zuen moduan eta lekuan egindakoak. Kosta departamentuko topografia zerbitzua-ren laguntzaz, zehaztu dugu ainguratzeko gune bat, eta eskari asko zegoelako handitu ere bai. Ondoren, itsasontzien esploraren arabera antolatu dugu, eta beste hainbat gauza aintzat hartuta. Horrez gain, kolore bateko buiak jarri...*

Gomez ustez, ez da diru askorik behar. *Kosta departamentuak dirua eskatu bai, baina berrantolaketarako dirua behar denean trukean ez da ezer jasotzen. Zerbitzu bat eman beharko lukete. Horren harira, aukera bat ere proposatzen du: Jabeek ordaintzen dutenetik zati bat diru-laguntza eran ematea elkarte bati, eta hori arduratzea itsasontzien antolaketaren kontrolaz. Donostian, jabeek, taldeko urteko kuotekin, egin ditugu antolaketak eta baita diru gastua ere.*

Errioz guztiak itsasora doazen eran errioz itsasoratzen dira aisialdiko hainbat ontzi Orion. Legeak eskatutako kuota ordaintzea bai, baina antolaketaz oraingoz haiek arduratzea erabaki dute jabeek. Kosta departamentuko gustukoa ez bada, gerta liteke denak uretatik ateratzea. Bien bitartean, moilan izango dira itsasora noiz aterako zain.

Barkatu

Espediente zenbakia:
1574938453233-h.
Data: 2011-09-21.
Auto mota: Citroen Xantia
beltza.

Autoaren matrikula: 4578-AGJ
Multaren arrazoia: Gaizki aparkatua.

Multa kentzeko gidariak betetako eskaera: *Gure lagun baten hileta zela eta etorri gara Oriora Goieritik. Herrian sartu bezain pronto esan digute Eliza obretan dagoela eta ikastolako aretoan izango dela. Hara eta hona bueltaka ibili ostean, kotxe mordo bat ikusi dut hori ilaran aparkatuta eta guk ere gauza bera egin dugu. Parabrisan multa. Meza entzun ondoren udaletxe azpiko purgatoriora etorri gara. Bertako batek esan dit eskaera eginda barkatuko didazuela multa. Hala espero dut. Eskerrik asko eta barkatu eragozpenak.*

Espediente zenbakia:
1574938453234-h.
Data: 2012-06-01
Auto mota: Audi A4 txuria.

Autoaren matrikula: 2160-HB
Multaren arrazoia: OTAko txartelik ez jartzea.

Multa kentzeko gidariak betetako eskaera: *Lasarten bizi gara eta oso gustura etortzen gara Orioko hondartza aldera bueltaxka bat ematera. Gaur gauza bera egin dugu, kotxea betiko lekuan utzi, barrara joan-etorria egin, tragoxka bat hartu, Orioz polita dagoen mila aldiz errepikatu eta hara gure sorpresa kotxera etorri garenean. Multa. Ez gara jabetu gaur hasten zenik TAO-OTA-denboraldia. Eskertuko genizueke multa barkatzea. Ez da berriz gertatuko.*

Espediente zenbakia:
1574938453235-h
Data: 2012-06-03
Auto mota: Opel Astra gorria.
Autoaren matrikula: 3748-BG
Multaren arrazoia: Gaizki aparkatua.

Multa kentzeko gidariak betetako eskaera: *Gaur ikastolako haurren ikasturte amaierako festa. Pentsa, kiroldegian sekulako betekada, ez nuen horrela sekula ikusi. Aparkaleku bila hiru buelta eman eta gero erabaki dut kiroldegi ertzean espaloiarekin kontra aparkatzea. Adineko jendea neraman kotxean, lekurik ez... espero dut multa barkatzea. Eskerrik asko.*



Barkamena eskatzea kostatzen omen zaio gizakiari. Ba Orion modan dago barkamena eskatzea.

Nori eskatzen diogu, ordea, barkamena? Eta nork barkatzen gaitu? Nork erabakitzen du zuri barkatzen dizut, baina zuri ez? Zuk hiru kasu horietako nori barkatuko zenioke? Eta zergatik? Nola dakizu azalpenak egiazkoak direla? Ze zentzu dauka barkamena eskatzea hirutik bitan gezurretan ari bagara? Eta ze zentzu dauka barkatzea? Errezatu bi aitagure eta lau abemari ea barkatzen dizun jaungoiko ahal guztidun horrek. Barkatu, baina ni biñeta jartzera noa.

BERME Ahoikularitza S.L.
Zerga eta lege aholkularitza

- AHOIKULARITZA ZIBILAKO
- AHOIKULARITZA ERREKON
- AHOIKULARITZA ERREKON
- LAN BARRUTIAK
- FORTAZA JURIDIKOA
- ALIENAZIOEN AHOIKULARITZA

Iratxe Mendizabala
943 83 05 37

b

Carmen eta Txomin
ARRANDEGIAN

943 83 05 37 / 943 83 27 47

Malder Arrillaga Sarasola · 138. Kol. zenb.
Arrantzale 63 · 20810 · Oriz · Gipuzkoa
Tel. 943 575 361

oinarri
PODOLOGIA ZENTROA

Orioko Herri Ikastola

Guraso Kooperatiba

ABESLARI KALEA, 8

TEL: 943 83 47 04

FAX: 943 13 09 38

orio@ikastola.net

www.oriokoikastola.net

Faroeko bakailaoa daukagu

ITSAS MENDI

gutuziak

Elizker Garbait, 5 · Tel. 943 24 07 74 · Oriz

TAILER MEKANIKO A
MANTEROLA S/L
INDUSTRIAL GARBIOLAN

Santiago Ouzoa · 18 postakutxa
Tel. 943 830 743
Fax. 943 134 634
E-mail: tmanterola@euskalnet.net
70 810 ORIO - GIPUZKOA

TMM

AENOR
150 9000

Esferako balbula
AENOR kalitate ziurtaginduna

ITZALA

Karrikin jokatzen
dun

tel. 943 83 12 59

libe
dietetika
elikadura aholkularitza

eusko gudariak 35 · ORIO
[Sanza Arrantzale kalea]

943 53 64 94 · 697 23 86 56
libegremendia@gmail.com

Aprobetxatu den gaur ere!

Finteratu al hitzanean, atzo iya 3 pintxo jan zizkiñan, besteek zurito bakarria hartu geniñan bitartean!
-Ba aurrekoan 5€ utzi nitxikionan eta ez omen zizkidan itzuliko! Edo zein fidatzen den horrekin!

Koadrilako botearen sakratutasuna dela eta, hara non etorri zaidan karrerako lehenengo lezioa burura: giza talde txikiak ere ba omen ditu bere arauak, eta taldea orekatu egoteko, oreka puntuak; ez daude inon idatzitak noski, baina, guztiok ongi barneratuak ditugu denak.

Pertsona batek goraka eginez gero, goregi ez igotzeko frenoak jartzen omen dizkiogu, edo taldean norbaitek lehentasuna hartzen duenean, hutsunea ikusi duelako izaten omen da: *ongi da, nik bukatuko dut aurkezpena.*

Harremanak hoztu edo sendotu egiten dira beren kasa, taldeko arauak direla eta, oreka hori bilatze aldera, talde txikiak ere erraz funtziona dezake berak bakarrik, *10 atera omen du nik utzitako apunteekin! Ez pentsa berri utziko dizkiodanik.*

Eta taldean gustukoa ez den jarrera balu norbaitek, baztertu egiten omen da pertsona hori edo, lainoetatik jaisiarazten omen zaio. *Nazkatuta nago beti talde lanak berak nahi dituen bezala egiten, ez naiz gehiago berarekin jarriko!* Arratoi talde batean, bertakoa ez den beste bat sartuz gero, berehala akabatzen omen dute, eta horien geneen %2 bakarrik desberdintzen da gizakienetatik: beldur pixka bat eman zidan datu horrek –mila esker aita, etengabe animaliak garela gogoratzeagatik–.

Gizakiak antolatze modu asko ditu; fami-

lia, lagun taldeak, herriak... Herrian bertan, denok daramagu gure historialaren zama gainean eta, tentuz ibiltzeari utziz gero, berehala jartzen dizkiogu etiketak elkarrri; *eguna zortuta pasatzen omen din!* edo *Joxek BMW berria ekarri din!* Baina badaezpada Santioko garajejan gordetzen din, *aaaamigo!* Denoi egiten zaizkigu ezagun horrelako komentarioak.

Taldea handituz doan heinean, nahiz arauak eta orekak ere egon, zailduz doa elkarrenganako kontrol hori. Badirudi, ukitzen ez gaituztelako edo, bost axola zaigula gure botea ez den gainontzekoa, jadanik ez dutela arau moralek funtzionatzen.

Rato jaunak ia hiru pintxo jan ditu oraingotan gure botetik, –23.500 milioi euro–, eta edozein fidatzen da orain Espainiaren ekonomia kaxkarraz, nork inbertituko du arrikutsua den eta ziurrenik dirurik itzuliko ez dion Espainian? –arrisku-saria 539 puntura iritsita–. *Tranquilos, hay dinero para Rato* irakurri nuen aurrekoan umorezko biñeta batean: umore beltza; ni behintzat, hainbeste zero artean zeharo galdu naiz, eta 23.500 edo 60.000 milioi, boteko karteran sartzen ez direnez...

Edozeinek lapurtu dezake lokaleko hilabeteke dirutik, hautsi ditzake lokaleko paretak eta berea ez zen bizikleta beretzat hartu, baina, harrapatuz gero?

Dukesa de Albaren azken operaziyua ikusi al den? Berak badin dirua eta aprobetxa dezala, sutan jarri nintzen aurrekoan hori entzun nuenean. Noski! nola ez du bada diru edo ondasunik izango, Albako Dukeak, XVI. mendean Nafarroako konkistan –geure estatua zenaren azken zatian–, Portugal, Tunez, Herberetan... eginiko gerra bakoitzaren ostean hogeitenero generazioetarako gutxienez egin zuen dirutza eta! *Baina bai, aizan, ze polita agertzen den Hola-ko argazkietan Dukesa.* Gure lokala txikitu, bereak ez ziren bizikletak eraman ditu! Itzul dezala berea ez dena!

Egunak eman nitzake konparaketa txoroak egiten eta hobe horrela uztea; barrara noa: *Orella, sei zurito eta bi patata zorro Jokinen kontura!*

Nire honetan
Ana G. de Txabarri

Eskerrak emateko

Orain dela 23 urteko hasiera hartan, inor gutxik pentsatuko zuen hainbeste denboran elkar lotuko gintuenik KARKARAK. Orduan ilusioz eta gogoz abiatutako asmoa pizgarri izan dugu eta, neurri handi batean, Orioko eta Aiako herriarrek emandako animoari esker egon gara hain luze. Hamabostero, KARKARA noiz kaleratu zain egon zarete, hartu eta goitik behera irakurtzeko guk idatzitako kontu, iritzi eta bertsoak; zuenztat hartutako fotografiak ikusteko; batzuek besteen berri izateko.

Argazki baten bila joan garenean, hortxe zuek prest behar ziren guztiak ateratzeko pazientzia osoz. Zerbait jakin nahi izan dugunean, beti aurkitu dugu zuetako norbait gogoz gauzak kontatzeko, patxada hartu eta hizketan jarduteko. Istorioren baten haria segitzeko zerbait falta guri eta zuek, ez istorio bat, mila eta bat kontatu dizkiguzue.

Hori guztia jaso eta bi herrien bizia aldizkarian txukun ematea izan da gure lana, eta lan horrek bizipoza eman digu eta urteetan kateatuta eduki gaitu gure herriekin eta gure jendearekin.

Uzteko garaia etorri zaigu eta, nahiz eta pena ere sentitu, esker ona adieraztea da bihotzez ateratzen zaiguna. Mila esker, mila bider.

Ni behintzat, hainbeste zero artean zeharo galdu naiz, eta 23.500 edo 60.000 milioi boteko karteran sartzen ez direnez...



Orioko Ogia

ORIOGI

OPIL OKINDEGIA
frontal ondoan

Tfnoa: 943 83 01 89

gizarte kutxa

INDO

Garraio frigorifikoa
NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA

Olaskoegia, 12 - Tel. 943 894 024 - Fax. 943 130 144 AIA-ORIO

Igo zaitez haize berrietara!

Galerna I

943890416 - 677149954
galerna.orio@hotmail.com

GaleBask S.L.

Berrikuntzak
Gremioen arteko koordinazioa

638 619 349
Tel./Fax: 943 134 717
galebask@hotmail.com

www.galebask.com
Kale Nagusia, 2 - bajo
20810 ORIO

Gabon

TABERNA

plater kaskak apurtxoak

Tfnoa: 943.83.06.09

LUXARBE

igeltzeritza

Igeltzeritza orokorra, denetarik agiten dugu.

Presupuestoak eskatu konpromisorik gabe

Lan txukuna eta merkea

Tfnoa: 943 59 59 00

TANATORIO ZARAUTZ

EUROFUNERARIAS TALDEA

Hileta eta zerbitzu orokorra

* Donostia eta probintziako ospitaleetan
* Alderoko zerbitzuak
* Belatorio gelak
* Korciak, eskalak, tranitzioak...

Araba kalea, 35 Zarautz

Tel. 943 89 48 37 / Fax: 943 89 48 48
e-mail: hanesp@hanesp.net

Dorronoro Denda

1963tik zure ondoan

BETIKO DENDA

el 943 83 09 37



agirresarobe

PROIEKTUAK, OBRAK ETA ERREFORMAK

- OBRA BERRIEN PROIEKTUAK
- ETXE ETA LOKALEN ERREFORMAK
- FATXADEN ERABERRITZEAK
- ISSGAILUEN PROIEKTUAK
- GREMIO KOORDINAKUNTZA
- INFORMEAK, OBRA LEGALIZAZIOAK, ...

ITURRIBIDE 8, 5. GULEGUA, ZARAUTZ
BORJA AGIRRESAROBÉ, ARKITEKTOA 635 731732

Goizeko

KAFETEGIA

943 83 28 55

Ara Lantxundi 30. bidea - ORIO
Autobus parada ondoan

RAMIRO

argazkiak

www.fotoramiro.com
fotoramiro@fotoramiro.com

610 69 76 68
943 83 10 48

2 GURPIL

6000016 2 - II - 30010 Orto (Gipuzkoa)

www.2gurpil.com

Gaia emanda

Orioko eskaintza soziokulturala

Orion hitzaldi eta bestelako eskaintza kultural ugari izaten da. Baina, kasurik egiten al diogu esku-eskura jarritako horri?

Zein da interes faltaren oinarria?

Nire ustez, ez dira baloratzen herritarroi ematen dizkiguten baliabide eta eskaintza soziokulturalak. Kontua da: benetan interesatzen al zaio jendeari?

Aurreko astean, esaterako, ezin izan dut joan plenora, baina ez pentsa jende asko joaten denik. Hori akats bat da gure partetik. Bestetik, aste berean, bi hitzaldi izan dira eta bietara gerturatu naiz. Bata zaharrentzat zen, bidea gurutzatzerakoan-eta izaten diren arriskuen gainean; eta bestea, gurasoentzat, *Ez dut umea zigortu nahi* izenekoa.

Bigarren hitzaldi horretan hamar guraso gazte baino ez ziren gerturatu, tartean ni, izaba naizen aldetik. Ez da nire heziketa modeloa bertan azaldutakoa, baina beste ikuspuntu bat jasotzeko eta nirearekin kontrastatzeko, zergatik ez halako hitzaldi batera azaldu? Nire harridurarako hamar pertsona baino ez ziren bertaratu. Orduetgia da arazoa? Ez zait iruditzen gaia eta ordutegia direnik arazoa. Eta ez da lehenengo aldia halako sentsazioarekin geratzen naizela.

Zero Zabor taldea sortzeko bilerara ere azaldu nintzen. Ez nintzen atez atekoaren guztiz aldekoa, baina bertan esaten zena entzuteko gogoz nintzen. Orion, nik uste dut birziklatzearen alde, ni bezala, jende asko egongo dela. Oso ondo hitz egin zuten bilera hartan eta gauza interesgarri asko esan zituzten. Orduan sortu zitzaidan galdera: jendeak beldurra al dio gauza berriei?

Hamabost lagun-edo egongo ginen. Eta halako aukerak ere ez ditugu aprobetxatzen. Ez al da bada lekurik aproposena galdera zehatzak egiteko sistema bati buruz? Atez atekoari ikusten nizkion gabeziei buruz galdetzeko baliatuen hura. Aurretik bosgarren edukiontzia gainera hitzaldian izan zen jendea, eta edukiontzia eta giltzaren bila joan zena bota nuen faltan bestean. Ez al dira arduratzen atez atekoaz? Edo, gutxienez, atez atekoa ezartzeko arris-

kua benetakoa dela ez al dute ikusten?

Jenderik ez, hori da arazoa. Baina arazo horren muina zein da? Talde konkretu batekin lotuko zaituzten beldurra? Egia da, ni halako toki batean pixka bat begiradak nire gainean sentitu ditudala. Eta zera esan zidaten: *poztekoa da jende diferentea halakoetara etortzea!* Diferentea? Zergatik naiz diferentea? Oso gaizki sentitu nintzen!

Beraz, askotan formek ere ez dute laguntzen jendea halako eskaintza soziokulturaletara gerturatzeko. *Aizu, anima zaitetz, oso hitzaldi interesgarria izango da-eta*, esan beharrean, *zu bezalako pertsonak etortzea ona da, horrela jende desberdina juntatuko gara*, esatea, hankasartze handi samarra da. Kontuan izan hurrengorako!

Edadetuen bilerara joan nintzenean, harridura geratu nintzen. Jende asko zegoen bertan, 50 inguru. Ibilgailuek harapatzeko arriskuak nola saihestu azaldu zieten hitzaldian. Baina, bukatzean, bakoitza poltsatxo batekin gustura etxera joan zela konturatu nintzen. Oparia

Jendeak interesa galdu du. Eta, agian, ez da izango lotsagarria Orion halakoek duten harrera, baina bai dela penagarria. Ez dugu aprobetxatzen behar beste halako eskaintza. Luxuzko hitzaldiak dirudite, horrela izan behar ez duenean. Dozena bat lagunentzat hizlari bat: klase partikularren pare!

zeramaten esku artean! Hortaz... berriz ere zalantza. Hitzaldia interesgarria zelako, hala opariaren trukean joan ziren hitzaldira? Sartzerako zerrenda osatua zegoen zein joango zen eta zein ez jakiteko. Harrigarria benetan! Ez zen ez interesagatik, ezta inplikazioagatik ere joan jendea.

Agian praktikotasuna da falta dena, eta hori eskertuko nuke. Egiten diren hitzaldietan teoria asko azaltzen dute, baina praktikan jartzea ez da erraza gero. Edadetuen hitzaldian ongi etorriko ziren, esaterako, test moduko batzuk, ongi eta gaizki egiten dutena beren begiekin ikus dezaten.

Mandalarako hitzaldi batean ere izan nintzen. Ez dut sinisten halakoetan, baina harrigarria da zenbat jende mugitzen duen. Eta, gainera, ez dira entzule pasiboak izaten, parte hartzaileak izaten dira. Bost euro ordaindu behar, hamar euro ordaindu behar edo doan izan. Akaso zerbait kobratu behar da antolatzen diren ekitaldien garrantzia ikusteko? Bestela jendeak pentsatuko du: *Berriz ere datorren urtean ekarriko dute halako zer edo zer eta berdin du*, edo halako zer edo zer.

Jendeak interesa galdu du. Eta, agian, ez da izango lotsagarria Orion halakoek duten harrera, baina bai dela penagarria. Ez dugu aprobetxatzen behar beste halako eskaintza. Luxuzko hitzaldiak dirudite, horrela izan behar ez duenean. Dozena bat lagunentzat hizlari bat: klase partikularren pare!

Ez dakit zein den akatsa. Orduetgia ez da aitzakia; nahi dugunerako tarte bat ateratzen badakigu. Azkenean, batzuenagatik beste batzuk galduko ditugu halako aukerak. Antolatzailea nekatu egiten da gauzak antolatu eta erantzunik ez duenean jasotzen. Babeslekukoek bezala, zerrenda osatu eta asistentzia minimo bat ziurtatu arte hitzaldirik ez egitea al da soluzioa? Ez zait iruditzen.

Mikal Etxeberria



ETBko eguraldiaren saioan ikusi zuen Benito Lertxundik diskoaren azaleko argazkia. ELKAR

Zuzenekoak asko janzten duen disko ederra

Kritika Benito Lertxundi

Abeslaria, 'Oroimenaren oraina' Elkarr, 2012.
Mikel F. Krutzagak Elkarr estudioetan grabatua.

Badirudi ez dela erraza Benito Lertxundi bezalako artista bati kritika egitea. Bati eta besteari eskatu eta *handitxo* geratzen zitzaiela erantzun didate. Eta errespetua ematen du. Baina Benito lurtarra da, eta ausartu egin naiz *Oroimenaren oraina* diskoari astindu txiki bat ematera.

Diskoaren sarrerako piano nota solteak, egia esanda, ez zaizkit gehiegi gustatu. Baina

atzetik datozen doinu sako-nak, bai. Hortaz, sarrera dotorea duela esan behar diskoak.

Segidan, begiak itxi, eta ahotsak albo batera utzi eta gainontzekoa entzuteko gaitasuna duenak, Toscanara, Italiara, bidaiatu dezake *Nintzenaz oroitzen* abestiarekin.

Kutsu mediterraniarra ematen dio Angel Unzuren *bouzuki*-ak –nik ere orain ikasi dut mandolina *arraro* horrek Grezian duela jatorria–.

Gainontzean, askori diskoak ezer berririk ez dio esango, agian. Nik, egia esanda, ez dut gehiegi entzun Benito Lertxundiren musika KARKARAN lanean hasi arte, eta harrapatu egin nau.

Agian Leonard Cohen eta haren banda gogoratzen didalako, ez dakit. Baina atsegin dut, *Laket dut*.

Dena dela, Benito Lertxundi zuzenean entzutea gomendatzen dizuet. Diskoan artifizialak diruditen instrumentu batzuk entzuten dira, akats bat bilatzearen, baina zuzenean ez da halakorik. Magikoak dira zuzenekoak.

Zoritxarrez, eztarriko gaitz baten ondorioz, denboraldi baterako ez da taula gainean izango Benito Lertxundi. Irailean-edo itzuliko da. Beraz, irailean, kontzerturen bat aukeratu eta goza ezazue.

IKER GURRUTXAGA

Ikasleak idazle
Jokin Elizalde

Muntoko jolaslekuko argiak

Herrian asko erabiltzen da kiroldegi atzean eraiki zuten jolas-zelai txiki hori, batez ere ume eta gazteek: leku onean baitago kokatuta eta kirola egiteko egokia denez, partidutxo bat egin eta denborapasan egoteko ederki etortzen da.

Baina arazo txiki bat du, azkenaldian, seguruenik krisia dela eta, asteburuetan, gauez fokoak itzaltzen dituzte. Nahiz eta ez dirudien, gaue-tan jende dextente ibiltzen da bertan, bai futboleak edota saskibaloian eta, orain, hori ezin da egin, hamaikak aldera itzaltzen baitituzte argiak.

Nire ustez konponbidea erraza da, aste guztian fokoak hamaiketan itzaltzea beharrean, astegunetan lehenago itzaltzea beharko lituzkete eta asteburuetan beranduago, guztira argiak piztuta egoten diren denbora mantenduz.

Aste guztian fokoak hamaiketan itzaltzea beharrean, astegunetan lehenago itzaltzea beharko lituzkete eta asteburuetan beranduago



azkue
karrozeria

Ubegun Industrialdea, 7 20809 Aia-Orio
T/fax: 943 83 51 86 Carrocenasazkue@hotmail.com

ARKAITZ
Taberna

Pintxoak,
plater konbinatuak
eta ogitarleko mundialak

ABESLARI ZALDIA 4 Telf: 943 83 16 57



Euskararen eta ikastolen mugimenduaren alde lan asko egin zuen Karmele Esnalek. JAVIER COLMENERO

Herria ez zioten lapurtu

Oroimenaren kutxa

Maiatzeko azken egunean esan zioten agur Donostian Karmele Esnali. Donostian bertan, egun eta ordu berean, Eduardo Galeano uruguaiarrak, prosa poetikoan, kaleko jende arruntaren istorio ederrak kontatu zizkigun. Esan zigun gizakiak ez gaudela atomoz osatuak, istorioez baizik. Karmelerena da horietako bat:

Karmelek zazpi urte zituen 1940an. Gerra bukatuta, esnaltarren familia osoa itzuli egin zen Frantziako atzerrietik Oriora, neskatoaren jaioterriera. Karmelek ordurako bazekien gerra galdu egin zutela. Artean ez zekiena zen

Orioko etxea, denda eta eskabetxeria ere galduak zituztela, gerraren irabazleek konfiskatuta, lapurtuta.

Baina ez, ez ziren ezer gabe geratu: bizirik zeuden, bazuten bizi grina eta egoera tamalgarriari aurre egiteko kementa. Donostiara jo zuten, eta han bizimodu berri bati ekin. Irakasle izateko ikasi eta maistra egin zen. Eta 1950eko urteetan, frankismo gorrian, orduko legearen kontra, agintarien ezkutuan, gehien jokaeraren bestela, Donostiako haurrei euskaraz erakusten hasi zen, galarazita eta ezkutuko ikastolan.

Gerra eta etxea galdutako neskatak aurre egin zien gerraren garaileei, bere etxearen lapurrei, hizkuntza ere kendu nahi ziotenei, egin zezakeen modurik eraginko-

rrean: hitz galarazia erabiliz, hura erakutsiz, hari bide emanez, hazia ereinez (ikastola, antzerkia, udalekuak, Zeruko Argia, euskaltzaina...). Gerra hura sekula piztu ez balitz, beharbada Orion egingo zuen antzeko bidea, Maria Maistrari lekukoa hartuta abiatuko zuen bidea. Auskalo!

Maiatzeko azken egunean, Karmeleri Donostian agur esan zioten ordu berean, Galeanok laudatu egin zituen injustiziari aurre egiten diotenak. Ekaineko lehen egunean, Karmeleri lur eman zioten Orion. Gerrako lapurrek bizitzan ezin izan zioten nortasuna kendu; ez eta heriotzan, atsedenerako, jaioterria ere.

¡ IÑAKI ITURAIN !

» JAIOTAKOAK

- Libe Agote Gantxegi, Orion, maiatzaren 25ean.
- Julen Sagastibelza Lertxundi, Orion, maiatzaren 24an.
- Ganix Sukia Yaben, Orion, maiatzaren 15ean.


» EZKONDUTAKOAK

- Borja Agirresarobe Lopetegi eta Nerea Urkia Manterola, Orion, maiatzaren 26an.
- Ane Aranzeta Ulanga eta Ahmadou Bamba Camara, Orion, maiatzaren 19an.
- Endika Guimon Gorostiza eta Rebeca Fernandez Fernandez, Orion, maiatzaren 19an.

» HILDAKOAK

- Nemesia Vélez Carrasco, ekainaren 1ean, Orion, 83 urte.
- Angel Arruti Aramendi, maiatzaren 25ean, Aian, 79 urte.
- Purificación Pérez Jiménez, maiatzaren 25ean, Orion, 88 urte.

.....
 ..
 .. Eskela edo
 .. urteurreneko
 .. gogoangarria
 .. Karkaran jarri nahi
 .. baduzu, deitu gure
 .. telefonora:
 .. **943 83 15 27**
 ..



iñaki argazkiak
caperochipi

ezkontzeka asmorik bai?

www.ikapero.com/ezkontzak
 659378751
 ikapero@ikapero.com

943 83 09 86

KOASTA

Wifi zerbitzua

Kopak, gau giro aparta...

KOLON TXIKI

Herriko Emparantza, 4
 ORIO
 Tel. 943 83 00 44

kutixi
 kafetegia
 GOSARI GONDAK

#11uzia 5.2017.0 Oria
 Tel. 943 13 13 17



B. CARRETERO

“Musikaren bidetik jarraitzeko asmoa dut, gero gerokoak”

Alba Carretero

Biolin-jotzailea

16 urte ditu Alba Carreterok. Donostiako kontserbatorioan dabil eta 4. lanbide mailan ari da biolina jotzen. Maiatzean hamar egun egin ditu Kolonbian, Euskadiko Ikasle Orkestrarekin eta esperientzia ‘bikaina’ izan dela dio.

IKER GURRUTXAGA

Denbora asko al daramazu musikan?

Bost urte ingururekin hasiko nintzen, Orioko Danbolin Musika Eskolan, baina ez nintzen biolinarekin hasi zortzi urte izan arte. Gero, Amaia Gutierrezen laguntzarekin, kontserbatoriora pasa nintzen. Hark lagundu zidan sarrera-probak prestatzen, haiei beldurra galtzen eta benetan musikaz gozatzeko lehen pausoak ematen. Beragatik izan ez balitz, ez nintzateke orain hemen egongo. Orain, astean hiruzpalau aldiz joaten naiz Donostiara.

Zein da kontserbatorioko egunerokoa?

Musika eskoletan baino ikasgai gehiago daude, adibidez, harmonia, konposaketa, orkestra, ganbera-musika... Ikasgai bakoitza normalean irakasle batekin egiten da, eta astean ordubete, bi ordu edo ordu erdiko saioak izaten dira, bana-ka edo taldeka.

Hasieran, uneoroko urduritasun-sentsazio batekin egoten nintzen: leku berria, jende berria, irakasle eta irakasteko era berriak... gainera, kontserbatorioko ikasle gehienak txikitatik han hasitakoak ziren, eta elkar ezagutzen zuten aspalditik; ni, ordea, kanpotik nentorren,

eta, noski, hamabi urte besterik ez nituen. Gerora, lagun on asko egin ditut han, eta benetan merezi duen jendea ezagutu dut. Ez naiz orain arteko ezertaz damutzen: berriz ere kontserbatoriora joateko erabakia hartu beharko banu, baietz esango nuke, seguru.

Hala ere, gogorra izango da.

Bada, bai, nahiko gogorra. Ni oraingoz nahiko lasai nabil, DBH ez da beste munduko ezer... kontua gero dator. Kontserbatorioko azken urteetan, adibidez, 9 edo 10 ordu klase dira aste bakoitzeko. Horretaz gain, etxean egiten dena gehituz gero, ordu asko dira.

Baditut nire mailako lagunak, musika batxilergoarekin batera egiten ari direnak, eta nahikoa estresatuta ibiltzen dira. Hala ere, denbora ondo banatzen jakitea da kontua, beti aurkitzen da eta lagunekin egoteko tarteren bat.

Asko mugatzen zaitu, noski. Baina, klaseak aste tartean izaten dira, eta aste-buruak libre izaten ditugu, kontzerturik ez badugu, behintzat. Zer egingo nuke bada, lagunekin egoteko aukerarik izango ez banu? Haien laguntzarik gabe ezingo nuke aurrera jarraitu, hori seguru, une latzenetan ere alboan ditudanak dira. Horregatik estimatzen ditut horrenbeste; badute meritua!

EIOrekin -Euskadiko Ikasle Orkestra- ere ibili zara. Nolako izan da esperientzia?

Esperientzia bikaina izan da. Bizitzan ahazten ez zaizun horietako bidaia bat Bogotara egindakoa. Hango jendea oso ireki eta jatorra da, eta primeran moldatu gara. EIO Kolonbiako *Fundación Batutako* orkestrarekin elkartu zen, eta gutako bakoitzak Bogotako gazte baten alboan jotzen genuen.

Ikaskide batzuk aurreko urteetan egonak ziren EIOrekin, eta probetarako aurkezteko animatu ninduten. Biolineko irakasleak gauza bera esan zidan eta, hala, aurkeztea erabaki nuen. Denbora eskaini behar zaio. Egun batean Bilboko kontserbatorioan egon ginen lehenengo kontaktua egiten, lehenengo entseguak eta abar. Gero bost egun pasa genituen Eibarren eta, ondoren, Kolonbiako bidaiari, hamar egun inguru. Bueltatu ginenean Euskal Herrian hiru kontzertu eman genituen, eta bukatu dugu aurten goa.

Zer eskatzen diozu musikari?

Oraingoz, musikaren bidetik jarraitzeko asmoa dut, hori baita benetan gustatzen zaidana; eta gero gerokoak. Zaila da musikatik bizitzea, hori argi daukagu denok. Gaizki ateratzen bada, bada, beno, ikusiko dut beranduago zer egin. Baina merezi du gustuko duzun zerbaitengatik lan egin eta borrokatzeak. Ez da hala?

» AZOKA

Iragarkietarako txokoa. Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

Lan eskaintza

■ 6 eta 7 urteko bi neskeri, etxean, ingeles eskola dinamikoak emango dizkien norbait behar dugu. Tf.: 618 911 008 eta 618 911 014. (Eba/Joseba).

Hartzeko

■ Animaliekin lurra lantzeko tresnak hartuko nituzke. Tf.: 697 750 196.

Alokatzeko

■ Garajea alokatzeko Arrantzale kalean, Anbulatorio parean. Tf.: 697 786 482.
■ Orion Goiko Kalean etxea alokatzeko, 3 logelako, sukaldea, sala eta komunak. Garajea aukeran. Tf.: 660 670 536 (Naroya) edo 699 716 253 (Lurdes).

■ Aita Lertxundi, 21ean 3 logela eta garajedun etxebizitza alokatzeko. Tf.: 609 917 399.

■ Orio erdian 3 logelako etxebizitza dut alokatzeko. Amaia. Tf.: 608 164 971.

■ Neska oriotarra pisukide bila Orion etxea alokairuan hartzeko. Tf.: 645 707 547.

Lan eskaera

■ Neska batek haurrak edo adinekoak zaindu, eta garbiketak egingo lituzke, barneko edo kanpoko bezala. Esperientzia eta erreferentziak ditut. 680 788 599 eta 943 831 128

■ Astebukaeretan edadekoak zaindu edo bainatze prest. Tf.: 664 834 388

■ Edadetuak edo umeak zaintzeko. Orduka, etxean edo kanpoan bizitzen. Esperientzia eta erreferentziak ditut. Tf.: 630 850 167.

■ Neska euskaldun esperientziaduna umeak eta edadetuak arratsaldean zaintzeko prest Tf.: 609 807 151.

■ Bi neska prest, edadetuak edo umeak zaintzeko zein etxeko lanak egiteko. Orduka, etxean bertan bizitzen edo kanpoan. Tf.: 699 184 832.

■ Neska arduratsua adineko edo umeak zaintzeko prest, garbiketak lanak, kanpo nahiz barru. Tfa: 610 147 291 (Sadia)

■ Neska oriotarra etxeak edo eskaratzak garbitzeko prest. Tf.: 666 036 780.

» ITSASOIA

EGUNA	ITSASGORA	ITSASBEHERA	ILARGIA
08	08:08 eta 20:27	01:50 eta 14:05	☾
09	08:59 eta 21:19	02:41 eta 14:55	☾
10	09:53 eta 22:15	03:33 eta 15:49	☾
11	10:52 eta 23:16	04:29 eta 16:48	☾
12	11:56 eta ____	05:29 eta 17:52	☾
13	00:21 eta 13:01	06:31 eta 18:58	☾
14	01:26 eta 14:00	07:31 eta 19:59	☾
15	02:23 eta 14:52	08:24 eta 20:51	☾
16	03:13 eta 15:36	09:11 eta 21:37	☾
17	03:56 eta 16:15	09:52 eta 22:18	☾
18	04:35 eta 16:52	10:31 eta 22:57	☾
19	05:12 eta 17:27	11:08 eta 23:34	☾
20	05:47 eta 18:02	11:44 eta ____	☾
21	06:22 eta 18:36	00:10 eta 12:20	☾
22	06:57 eta 19:12	00:47 eta 12:56	☾

» ZAINTZAKO BOTIKAK

EKAINA

■ 8an, Iriarte.
■ 9tik 15era, Lasa.
■ 16 eta 17an, Mutiozabal.
■ 18an, Azaldegi.
■ 19an, Zulaika.
■ 20an, Gallo.
■ 21ean, Larrañaga.
■ 22an, Mutiozabal.
■ 23 eta 24an, Iriarte.
■ 25ean, Zulaika.
■ 26 eta 27an, Etxeberria.
■ 28an, Mutiozabal.
■ 29an, Etxeberria.
Gauetako zaintzako botika: Zulaika

Azaldegi: Urdaneta kalea, 8. 943 13 31 83 Zarautz
Etxeberria: Gipuzkoa kalea, 17. 943 83 23 98 Zarautz
Mutiozabal: Kale Nagusia, 12. 943 83 29 70 Zarautz
Larrañaga: S. Frantzisko, 16. 943 13 38 14 Zarautz
Lasa: Herriko plaza. 943 83 09 36 Orio
G. Artifano: S. Frantzisko kalea, 17. 943 13 40 19 Zarautz
Iriarte: Zinkunegi, Pilartxo Enea. 943 13 29 83 Zarautz
Zulaika: Bizkaia kalea, 41. 943 13 39 94 Zarautz

4. orrialdetik dator

Harrituta gaude, 1.000.000 euro gainditu ditzakeen plan bat nola onartu litekeen hain azaleko lana eginda.

Aiako Arau Subsidiarioekin ere kontratsana du. Pasealeku bat egin nahi da Auzokalte Gain eta Aia erditik; baina, berez, legez, etxeak egiteko izendatua dago lur sail hori. Badirudi aurreikuspen lanik ez dela egin.

Plana gardentasunez eta legez aurkeztu dadin, honako alegazioak egin ditugu:

– Arau subsidiarioen aldaketa puntuala eskatu, lur horiek birkalifikatu behar diren ala ez erabakitzeko.

– Aparkaleku baten beharra aztertze-ko eskatu Auzokalte Gain eremuan, Altxerri interpretazio zentroak ekarriko dituen ibilgailuek egungo aparkalekua saturatu ez dezaten.

– Udaleko webgunean proposamena zabaltzea, planeamendua tramitera onartzen denean, akordio bidez, herri-tarren parte hartzea bermatzeko.

Gure ustez, kanposantu inguruko muino horrek balio eta xarma berezia du herrian, paisaiari eta turismoari, gainera, balio erantsia ematen diona. Hor etxebizitzak eraiki litezkeela jakin dugunez, arau subsidiarioak aldatu eta proiektua bertan behera uzteko eskatu

diogu Udalari. Horrez gain, argi eta garbi utzi nahi dugu pasealekua egitearen alde gaudela, baina muino horretan etxebizitzak egiteko aukera betiko ixtea nahi dugu. Beste herri eredu bat beharrezkoa dugu.

Bukatzeko, gu ere Udalaren parte garenaz, herriko proiektuen berri eman behar liguke EAJk gardentasunez, eta elkarrekin hitz eginez. Elkarlanean arituz gero ez dugu alegazioak jartzeko beharrik ikusiko. ■ **Aiako Bildu**

Zerbitzu publikoak, unibertsalak eta doakoak

Maiatzaren 31n hainbat langile mobilizatu ginen herrian. Izan ere, sektore publikoko langileak gure eskubideak defendatzen eta osasuna, hezkuntza eta babes soziala bermatzeko dituzten politika publikoetan aldaketak aldarrikatzen ari gara. Gaur Espainian zein EAE eta Nafarroan gobernatzen dutenek baliabide publikoak bankari eta enpresa handien esku jartzen dituztela salatu nahi dugu.

Zerbitzu publikoak pribatizatzen dituzte. Gero eta zerbitzu publiko gutxiago egotea nahi dute, jendeak arlo pribaturajo dezan, gutxi batzuk gure eskubi-

deekin negoziua egin dezaten.

Zerbitzu publikoak birritan ordaintzea nahi dute: lehenik, zergen bidez. Horietan lanaren errentak dira ekarpen funtsezkoena, enpresarietako eta profesionalen langileok baino 10.000 € gutxiagoko urteko errentak aitortzen baitituzte; bigarrenez, unibertsal eta doakoak izan beharko lirakeen zerbitzua geure poltsikotik ordainduz.

Politika publikoak aldatzea exijitzen dugu. Geure zergen dirua non erabili, zerbitzu publikoak nola garatu, kalitateko enplegua sortu eta hori lortzeko geure ekonomia antolatzeke modua erabaki nahi dugu.

Nafarroa eta EAEko gobernuak martxoaren 29ko Greba Orokorrean jendar-teak egindako aldarria bere egin dezaten exijitzen diegu: Euskal Herriko langileon borondatea errespetatu eta zerbitzu publikoak bermatzeko behar diren neurriak hartuz. Kalitateko enplegua eta bizimodu duina izateko aukerak emango dizkigun aberastasunaren banaketa bizitzeko ekin diezaiotela.

Estatu Espainiarraren barruan ez dugu eredu sozio-ekonomikoa aldatzeko aukerarik, eta hondamendira goaz.

Burujabetza politiko eta ekonomikoa! ■ **Ikastolako komitea eta Maria Maestra haur-eskolako irakasleak**

Orio

Ikastaroa

■ Ekainaren 9an, Euskadiko Kirol Portuak erakundeak antolatuta, nautika ikastaroa: Itsas segurtasuna eta arrantza araudia. 10:00etatik 13:00etara, Kultur Etxean.
 ■ Ekainaren 16an, 10:00etatik 13:30era eta 16:00etatik 19:00etara eta ekainaren 17an, 10:00etatik 13:30era, *I Ching Dao* ikastaroa. 80 euro. Irakaslea: Beñat Arbelaiz Gallego. Kosta tailerrean. Informazioa eta izen-ematea: 609 691 911 (Beñat) edo mandalarataldea@gmail.com.

Informatika

■ Ekainaren 14an eta 19an, IT txartela, Informazioaren Teknologien Erabilera-ziurtagiria, ateratzeko azterketa, 16:00etatik 18:00etara. KZgunean.

Bingoa

■ Ekainaren 13an eta 20an, bingo saioak edade-tuentzat. 16:30etik 18:30era, Kultur Etxean.

Traste zaharrak

■ Ekainaren 13an eta 27an, traste zaharren bilketa ohiko zabor ontzien ondoan. Aurretik udaletxera deitu behar da zein traste aterako dituzuen jakinaraziz. Tf.: 943 83 03 46.

Danborrada

■ Ekainaren 15ean eta 20an, danborradako entseguak. 19:00etatik 20:00etara gazteak eta 20:00etatik 21:00etara helduak, Balea plazan.

Irteera

■ Ekainaren 16an, 15:30ean eta ekainaren 23an, 17:30ean ordu eta erdiko kayak ibilaldia erriogan barrena. 16:00etan, Herriko Plazan.

Helduak: 13 euro; 12 eta 16 urte bitartekoak: 7 euro. Aldez aurretik erreserba egiteko turismo bulegora joan edo 943 83 55 65ra deitu.

Dantza

■ Ekainaren 16an, Danbolin Musika Eskolako dantza ikasleen emanaldia. 18:00etan, kiroldegian.

Musika

■ Ekainaren 19an, Danbolin Musika Eskolako piano ikasleen emanaldia. 18:00etan, Kultur Etxean.
 ■ Ekainaren 21ean, Musika Eskolako trikitixa eta pandero ikasleen emanaldia, 17:00etan; klarinete eta saxofoikoena 18:30ean, Kultur Etxean.

Odol-emaileak

■ Ekainaren 22an, odol-ateratzea. 18:30etik 20:30era, ambulatorioan.

Aia

Kirola

■ Ekainaren 9an, Zarautz-Aia herri-krosa. Irteera: 11:30ean, Zarauzko San Frantzisko eta Kale Nagusiaren artean. Helmuga: Aiako plaza

Erromeria

■ Ekainaren 10ean, erromeria Saioa Lizarralde eta Idurre Arriolarekin. Ekainaren 17an, Imuntzo eta Belokirekin. 18:30etik 21:30era, Aristerrazun.

Silo-Bolak

■ Ekainaren 12an, silo-bolen bilketa. Informazioa: Urkome (943 81 65 00) edo Igor (660 04 97 51).

Podologia

■ Ekainaren 16an, podologoaren kontsulta. Ordua hartzeko deitu: 943 13 11 44.

IGLESIAS SARRILAGILEAK **24** Orduko zerbitzua

Javier Iglesias Fernández
 637 723 308
iglesias.enjor@sarrilagileak.es
2010 ORO

- ATYAK IKUNTZEN DITUO
- SARRILAKA-ERLENGO ALDARAK
- ATYAK IETKO MALDURIEN ALDARAK
- KOMUNITATEETZAKO ZERBITZUA

Santi Barranco aseguru agentea

Aritzaga 3 - 2. edifizio ORIO

Tf.: 610 561 388 - 659 210 221 e-posta: sbarranco@segurosbilbao.com

SEGUROS BILBAO Grupo **CATALANA OCCIDENTE**

tel/fax: 943 89 00 69
 Edoakale 4 - 28802NAUTZ

URBIDE

ITURGINTZA BEROGINTZA
 BASA_BAINU ERAKUSKETA

XABIER URRETABIZKALA

- Instalazio elektrikoak
- TDT antenak
- Aterain automatikoak

60 urte zerbitzua ematen

Tf.: 943 83 17 74
 Arantzale 31 - 48100 ORIO

ASADOR XIXARIO

Plaza Gendreau, 4. 48100 ORIO
 Tf.: 943 83 18 97

Zaragueta Eskola Orio

telefonoa: 943 89 40 52
 e-mail: C12137aa@hozkuetzka.net

ODITZ

Primo ebatzeta nautzaleki
 1994 eta 2000 artean

tel. 943 53 00 89

PERTSIANAK

A M
 K O
 D A
 Z

Aluminio, PVC
 Venerriak
 Motorrak...

tel. 943 83 91 Mugakorra 600 70 52 27

URAITZ

Lurrindegia

Enfite: Tf. 943 83 18 97

URANGA

burdindegia

Opari, menaje eta erremuntak

Tel. uranga@euskalnet.net
 Telefax: 943 8312 36 Enjoko Gendreau, 5

